Erresuma Batutik, Alemaniatik, Italiatik eta Gainerako Europatik datuzen turistek hilabetez hilabete joera ezberdina daukate. Italiarrak gutxi gorabehera iraunkor mantentzen dira igoera eta jeitsiera baxuekin, ekainarte, non igotzen hasten diren, abuztuan, aurreko hilabeteetan baino 10 aldiz turista gehiago lortuz. Irailatik urte bukaerara jeisten doaz.




Erresuma Batuko biztanleak oso aldakorak dira hilabeteetan zehar, igoera haundi batekin maiatza eta irailan, azken hau izanik britaniar gehien datozen hilabetea.

Alemaniarrek, ekainan lortzen dute beren kuotarik altuena, gorakako izaera jarrai bat eta gero, apirilean izan ezik, beherakada bat jasaten dutelarik. Ekaina da turista alemaniar gehien erregistratzen dituen hilabetea, eta hurrengo hilabeteak, abuztua eta iraila, ia berdin jarraitzen dute, baina beherakako joera batekin urtearen bukaerara.

Gainerako Europako Herrialdeetatik datozen turistak, ez daudenak hemen aztertutakoetan bilduta, otsailan, ekainan, abuztuan, irailan eta azaroan beherakada bat daukate eta gainerako hilabeteetan igo egiten dira, uztaian tontor handiena lortuz. Oso joera alderria isladatzen dute.

Portugalen bizi diren turistak, Euskadira, apirila, maiatza, uztaila eta urrian etortzen dira batik bat, uztaila izanik nagusia.

Belgikarrak maiatararte, gorakada urri bat adierazten dute, atzerapen bat daukaten momentua, eta hemendik aurrera berreskuratzen dira hasten




maximorarte, abuztuan, urte bukaeraraino jeisten joaten direlarik.

Holandako turistak, uztailararte goraka doaz, azaroraino jeisten joateko eta urtea gorakada txiki batekin bukatzeko.

Urrunago bizi diren turistak, hala nola, Iberoamerika, Ipar Amerika eta munduko gainerako herrialdeak, ez dute aztertu ditugun herrialdeetakoekin konparatuz oso joera ezberdina.

Iberoamerikarrak otsailan, uztailan eta urrian dituzte maximoak.



Iparamerikarrak maximoa uztailan daukate, aurreko hilabeteko bikoitzarekin.


Azkenik, munduko gainerako herrialdeetik datozen turistek igoera iraunkor bat mantentzen dute urrirarte, maximoa, urte bukaerarte gogorki jeitsiz.

Laburbilduz, antz ematen da, nahiz eta turismoa nahiko iraunkor mantentzen den udazkenean, udaberrian eta neguan, edozein dela ere turisten jatorrizko herrialdea, udara da turista gehien biltzen dituen sasoa.

2.3.- Euskadira etortzen diren turistak, hilabeteko, bisitaren arrazoiaren arabera. 2012. urtea

Turistek Euskadi bisitatzera bultzatzen dituzten arrazoiak, era aldakor batean jokutzen dute urteko hilabeteetan zehar.

Aisiaren arrazoa, urtarrilean duen %50,2tik (40.582 turista) abuztuko %74,7ra (226.451) doa. Arrazoi hau nabarmenki igotzen da udako hilabeteetan (ekaina, uztaila, abuztua eta iraila) eta urteko azken hiruhilekoan, turista hauen kopurua lehenengo hiruhilekoko zenbakieta jeisten da.



Laneko arrazoiengatik etortzen diren turistek

joera alderrai bat aurkezten dute, beren pisuetan aldaketa asko gabe. Hilabeteen joanean tartekatuz joaten da, beherakada logiko batekin udako hilabeteetan, langileen oporrak direla eta. Beherakada handiena abuztuan gertatzen da, turisten %7,6 bat irudikatzen duelarik (22.288).

Ikasketen arrazoiak garrantzi gutxi dauka bidaiaren arrazoiaren artean, arrazoi honek 6.600 turistak ez dituelarik inoiz gainditzen.


Euskadi arrazoi pertsonalengatik bisitatzeak, garrantzi handiagoa dauka lehenengo lauhilekoan. Hilabete hauetan pisu handiagoa dauka, baina balio absolutoetan altuena abuztuan dago, 33.312 turistekin.

Aurrekoetan ez bildutako arrazoiak, abenduan lortzen dute garrantzi gehien 8.600 turistekin.

2.4.- Euskadira etortzen diren turistak, hilabeteko, egonaldiaren iraupenaren arabera. 2012. urtea

Ostatu-gau bat egiten duten turistak hilabete gehienetan egonaldi handiagoen aurretik daude. Otsaila, maiatza, ekaina eta iraila dira, 2 eta 3 ostatu-gau egiten dituzten turistek gainditzen dituzten hilabete bakarrak. Uda sasoiaren, egun bateko egonaldiak eta 4tik 7rakoak dira igoera gehiena daukatzenak. 8tik 15 egunerako egonaldiak garrantzi gutxi daukate Euskadiko turisten artean. Irailean da bere interhileroko proportzio handiena irudikatzen dutenean.

16tik 30 ostatu-gau bitarte egiten dituztenak (hilabete bat baino gehiago daudenen antzera), garrantziko turistak izaten dira norako turistiko batentzat, tamalez oso gutxi dira. Martxoan eta abuztuan tontor altuenak daude, 4.817 eta 5.026 turista hurrenez hurren. Balio hauek martxoan %4,0a irudikatzen




dute, abuztuan berriz, turisten gorakada orokorra dela eta, nahiz eta bere kota absolutoko hilabetea izan, portzentualki hilabeteko turisten %1,7 a bakarrik lortzen du.

Hilabete bateko baino gehiagoko ostatu-gauak egiten dituzten turistek, abenduan lortzen dute bere maximoa %2,4 batekin (2.315 turista).

2.5.- Euskadira etortzen diren turistak, hilabeteko, erabilitako ostatu motaren arabera. 2012. urtea

Euskadiko turisten artean ostatu mota erabiliena hotela da. Urtarrilan eta abenduan ikus daitekeen bezala, ostatu mota honen garrantzia jeitsi egiten da, familia eta lagunuen ostatu motaren onurarako. Gertakari hau Eguberriarekin erlazionatuta dago, egun hauetan familiakoak eta lagunak Euskadira etortzen baitira beren senideekin egoteko eta hauen etxeetan pasatzen dituzte gauak.

Uztailan eta abuztuan ere nabari da hoteletako turista proportzioan beherakada bat, baina kanpineko turistaren eraginez da oraingoan. Eguraldi ona egiten duen hilabeteak direnez, turista gehiago dira ostatu mota hau aukeratzen dutenak, ostatu-gauen prezioari dagokionez bere abantaila lehiakorraz gain.




Gainerako ostatu motak urteko hilabeteetan zehar antzeko erabilera edukitzeko joera daukate.


2.6.- Euskadira etortzen diren turistak, hilabeteke, norako Lurralde Historikoaren arabera. 2012. urtea

Euskadira etortzen diren turistak, hilabeteke, norako Lurralde Historikoaren arabera aztertzean, norakoaren erabakian iragankortasunaren eragina ikertzeko, ikus daiteke, martxoan, Arabako Lurraldeak bere proportzio altuena lortzen duela, %12,3 eta irailan baxuena, %3,4 (4.947 turista izanik, balio absolutoetan ere baliorik baxuena).

Gipuzkoa edo Bizkaia norako bezala aukeratzen duten gainontzeko turistaren proportzioak harreman zuzena dauka, hala, baten gorakadak bestearen beherakada eragiten du. Gipuzkoan turistaren kota altuena abuztuan gertatzen da, 156.194 turistekin, eta baxuena urtarrilan 33.568rekin. Bizkaian, abuztuan ematen da ere maximoa, 119.902 eta urtarrilan minimoa 29.825 turistekin.




Urtarrilan, otsailan eta apirilan, Bizkaia da norako aukeratuena turistaren artean, aldiz, beste 9 hilabeteetan Gipuzkoa da gogokoena.



2.7.- Euskadira etortzen diren turistak, hilabeteko, norako turistikoaren arabera. 2012. urtea


Norako turistikoetan sakonduz, Lurralde Historikoetari begiratu ordez, hiriburuei begiratzen bazaie, jokaera ezberdinak ikusten dira. Aurreko puntuak Bizkaiak Gipuzkoa urtarrilan, otsailan eta apirilan bakarrik gainditzen bazuen, orain, Bilbo da Donostia/ San Sebastian gainditzen duena hilabetero, uztaila eta abendua kenduta. Arabar hiriburuak Arabako Lurralde Historikoko proportzio berdinak mantentzen ditu gehien bat, Arabako turista gehienek aukeratutako norakoa, Vitoria/ Gasteiz hiria delako.



Euskal Kostaldeko norakoa osatzen duten herriek, uda sasoian proportzioa handitzen dute, hondartzak dituztelako.

Barnealdeko norakoak antzeko proportzio bat mantentzen du, urteko azken hiruhilekoko gorakada nabarmenduz, eta bereziki azaroakoa.

Grafikan ikus ezin badaiteke ere, Arabar Errioxa turisten %0,9 batek aukeratzen du norako bezala martxoan, eta %1,1 turistek azaroan.




2.8.- Euskadira etortzen diren turistak sarbidearen arabera. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa- Euskadi 2008 - 2012

Sarrera turistikoaren bereizgarri nagusia, 2011ko errepide bidezko turistaren berreskuraketa izan da aurreko urtearekin alderatuz, ia 350.000 turista lortuz.

Azken urteotako gorakada honek, munduko krisi ekonomikoak eragindako merkatu turistikoaren uzkurdurari balazta jartzen dio.

2010ean errepide bidezko turistak berreskuratzen hasi ziren pixkanaka, baina 2011ean eta batez ere 2012an da ekonomia turistikoari bultzada handi bat ematen zaion momentua. Aire bidez, sektorearen berreskuraketa beranduago iritsi da, zehazki hau da lehen urtea lortutako emaitzak joera aldatuta aurreko urteekin alderatuz, 2008ko balioetara iritsiz.



Txosten honetan, 1998tik dagoen bildumaren barruan, lehen aldia da itsasontzi bidez datozen turistaren gaineko datuak lortzen direla.


Ikusi daitekeen bezala, oso garrantzia txikia dauka, azken bost urteotan, itsas bidez 40.500 turistaren zenbakia inoiz gainditu gabe. %3 a baino turista gutxiago irudikatzen ditu bakarrik. Gainera zenbaki urri hauek jeisten jarraitzen dute azken bi urteotan, 2012an 18.871 itsas bidezko turistetan gelditu arte.

Lehengo urtearen aldera, azken urtean turisten gorakada, aire bidezko turistek zor zaie batik bat. Hauek, 50.438 turistatan igo dira, aldiz errepide bidez egindako bisitak gutxi igo dira, 21.827. Itsasontzi bidezko turistak, 9.130 turistatan murriztu dira.

Emitza hauek, aire bidezko %11,2ko igoera bat suposatzen dute, errepide bidez %1,8 eta itsaso bidez %32,7ko beherakada bat, %3,8ko batezbesteko igoera bat ekarriz.

Azken urteetan bezala, sarbidearen arabera turisten pisuen erlazioa, errepidearen alde desorekatzen ari da. Errepide bidezko sarbidea bisita turistikoaren %70,3ren arduraduna da.



Estatuan turistek erabiltzen dituzten sarbideak, Euskadikoak kontrakoak dira. Estatuan turisten %80,5a aire bidez etortzen da eta azken bost urteotan proportzio berdinean egiten dute, %77tik urte honetan lortutako maximora (%80,5). Estatuan errepide bidezko sarbidea aukeratzen duten turisten portzentaiak ez du %20 a gainditzen, eta aurten konkretuki %17,6era jeisten da.



Itsasontzi bidezko sarbidea aukeratzen duten turisten pisua antzekoa da Euskadin eta Estatuan, bi kasuetan %3aren azpitik mantentzen delarik azken urteotan. Euskadin bezala, sarbide mota honek azken bi urteotan beherakako joera bat darama Estatuan.


2.9.- Euskadira etortzen diren turistak, bizilekuaren arabera. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa- Euskadi 2008 - 2012

Euskadira etortzen diren turistak, bizilekuaren arabera, 11 estatutan bildu dira, aurten hauetako seik gorakada bat jasanez (Frantzia, Erresuma Batua, Gainerako Europa, Iberoamerika, Ipar Amerika y Munduko Gainerakoak) eta gainerako bostak beherakada txiki bat (Alemania, Italia, Portugal, Belgica eta Holanda).



Frantsesek, turisten artean lehenengo postua daukatena, eta beste bizilekueetatik oso aldenduak, oso bilakaera positibo bat aurkezten dute (%4,4), bi lurraldeen artean dagoen hurbiltasunagatik gehien bat. Azken bost urteetan bilakaera positibo bat jarraitu dute, 2011ean igoera haundi batekin, %70,7. Gaur egun, turista frantsesek, Euskadira etortzen diren turisten %55,1 a irudikatzen dute, hau da, Euskadi bisitatzen duten bi turistetatik bat, Frantzian bizi da.

Azken finean, europar merkatuak, aurten, turisten %87 irudikatzen du, Ipar Amerikakoak %3,8a, Iberoameriketakoak %3,7a eta Munduko gainerako herrialdeek %5a.



Euskadin, azken bi urteotan, turista frantsesak asko hazi diren moduan, Estatuan ez dago herrialderik urteen joanean aldaketa asko izan dituenik. Estatuko turista gehienak Erresuma Batuan dute bizilekua (lautik bat). Frantsesak, alemaniarrek eta gainerako Europakoak, dira ingelesen atzetik doazenak. Turista hauek %16tik %24rainoko proportzio bat finkatzen dute, Euskadin proportzio hau %7ra jeisten delarik.


Italia, Portugal, Belgica, Holanda, Iberoamerika, Ipar Amerika eta Munduko beste gainontzeko herrialdeetakoak antzerako pisua dute Estatura eta Euskadira etortzen diren turisten artean.

2.10.- Euskadira etortzen diren turistak, bizilekuaren eta sarbidearen arabera. 2012. urtea

Atzerriko eskaera turistikoaren errepide bidezko nagusitasuna, distantzia motz eta erdiko turismoaren (frantses eta portugaldar merkatuak) mendekotasunak markatua dago. Jatorri frantsesak eskaera guztiaren %55,1 zehazten du, 962.500 turista gutxi gorabehera, eta errepide bidez sartzen den turismoaren %77tik gertu.

Aipagarria da, errepide bidez datozen frantsesen multzoaren interurteko hazkundea, %4,9koa, portugaldarren %4,3ko galeraren kontura. Alemaniarrak eta italiarrak dira, frantsesen eta portugaldarren atzetik, sarbide mota hau erabiltzen dutenak, alemaniarrak aurreko urtearekin alderatuz %22 bat jeitsi direlarik eta italiarrak %7 bat. Errepide bidez Euskadira datorren turista portugaldar bakoitzeko, 12 frantsesek baino gehiagok egiten dute, eta turista alemaniar bakoitzeko (ranking-ean hirugarrenak direnak), 27 frantsesek baino gehiagok.

Aitzitik, aire bidez, urrunagoko herrialdeetakoak nabarmentzen dira, eta Bilboko nazioarteko aireportuarekin puntuz puntuko konexioak dituzten herrialdeetakoak. Lehenengo postuan, Gainerako Europa osatzen duten kolektiboa aurkitzen da (94.223), ondoren alemaniarrak (81.484) eta azkenik Erresuma Batutik datozen turistak (75.530).



Erresuma Batuko aireportu bidez datozen turistek, %22,5eko interurteko hazkunde bat jasan dute 2012. urtean, alemaniarrek %9,6 eta Gainerako Europak %44.

Itsas bideko sarbideari buruz, Erresuma Batuko turistak dira gehien bat sarbide mota hau erabiltzen dutenak, 2012an 14.608 bidaiari lortuaz (lehengo urtean baino %7,2 gehiago), beste jatorriak sarbide mota honetan ez direlarik esanguratsuak. Egoera hau, Bilbao Portsmouth ibilbidea egiten duen, Brittany Ferries konpainiako ferriari zor zaio.


Beste kontinente batzuetatik errepide bidez sartutako turistak, bidai interkontinentala hegazkinez egin dutelako gertatzen da, eta gero Espainiako muga errepide bidez zeharkatu dute. Adibidez, amerikar bat, EEUU-tan hegazkin bat hartu duena Alemaniara, eta beste bat Alemaniatik Biarritzera. Gero Biarritzetik Euskadira etorri dena kotxez edo autobusez, errepide bidezko sarbidea erabili duen turista amerikarra bezala sailkatuta agertuko litzateke.

2.11.- Euskadira etortzen diren turistak, bizilekuaren eta egonaldiaren iraupenaren arabera. 2012. urtea.

Euskadira etortzen diren turistak, frantsesak, egun bakarreko egonaldiak egiten dituzte (467.884), eta beste erdiak, heren batek, 2 edo 3 gauko egonaldiak egiten ditu (335.307), hau da, turista frantsesen %83,4ak mota honetako egonaldiak egiten ditu.

4 eta 7 egun arteko egonaldiak egiten dituzten frantsesak, %12,9 bat direnak (123.667), beste edozein bizilekuko turistek baina gehiago suposatzen dute eta aste bateko egonaldia gainditzen dutenak 45.591 dira.

Frantsesen interurteko hazkundeak, egonaldia iraupenaren arabera, emaitza onak lortu ditu, ostatu-gau bat egiten dutenen %4,7ko igoera batekin. Bitik hirura egiten dituztenak %0,5eko hazkunde batekin, ia berdindu dira. 4tik 7ra eta 8tik 15era bitartekoak igo egiten dira %13,4 eta %12,4 hurrenez hurren eta 16tik 30 ostatu-gau bitarte egiten dituztenak, hazkunde batekin harrizten gaituzte, %68,5ekoa, aldiz hilabete bateko egonaldia gainditzen duten turistak (1.924) %57,2ko beherapen bat jasaten dute.




Portugaleko turistak %70 batean gau bakarreko egonaldiak egiten dituzte (59.021 pertsona). Bitik hirura eta lautik zazpirako egonaldiak pisua galtzen dute. Zortzitik hamabostera eta hilabetea baino gehiagoko egonaldiak, ia desagertu egiten dira, aldiz, 16tik 30era bitarteko egonaldiak, nabarmenki igotzen dira gainontzeko herrialdeen proportzioen aurrean, eta balio absolutoetan 12.695 turista lortzen dira.

Bestalde, 3.558 turista holandarrak aipagarriak dira eta 3.259 turista iberoamerikarrak ere, hilabate bat baino gehiagoko egonaldiak egiten dituztenak.

2.12.- Euskadira etortzen diren turistak, bizilekuaren eta erabilitako ostatu motaren arabera. 2012. urtea

Berriz ere, erabilitako ostatu motaren arabera, nahiz eta frantsesek aukeratutako ostatu mota batzuen banaketan pisu portzentuala txikia izan, balio absolutoetan, kasu guztietan, ostatu mota bakoitzeko turista gehien ekartzen dituztenak dira, beste merkatuekin alderatuz.

Horregatik, hoteletan edo antzekoetan ostatu hartzen duten frantsesen %43,5 a, 418.735 turista dira, garrantzian bigarrenak diren gainerako Europako turisten zenbakia baina bost aldiz gehiago, hauek 87.000 direlarik. Berezko etxebizitzak erabiltzen dituzten frantsesak %1,3 dira (12.092), hurrengoak bikoiztuz, holandarrak, 5.439 direnak. Alokairuzko etxebizitza, %1,9 batekin (18.066 frantziar turista), beste merkatuetatik gutxien aldentzen den ostatu mota da, portugaldarrak %36 batean bakarrik gaintzen dituelako. Familia edo lagunaren ostatu mota 218.751 frantsesek erabiltzen dute (%22,7), hurrengo merkatukoak baino 9 aldiz gehiago, Erresuma Batua. Kanpinetan ostatu hartzen duten frantsesak 135.460 dira (%14,1), hurrengoak baina 8 aldiz gehiago, alemaniarak, 16.525 turista. Azkenik, beste ostatu motak erabiltzen dituzten frantsesak (159.354), %16,6, hurrengoak ia 27 aldiz gehiagotan gaintzen dituzte, britaniarrak, 5.999 turistekin.




Frantzia ez den herrialdetan bizi diren gainontzeko turisten artean, hotela da baita ere ostatu mota nagusia, pisu desberdinekin, %40tik %83,7ra. Urrunagoko herrialdeetatik datozen turistak ez dute kanpina ostatu mota bezala erabiltzen eta hotela proportzio handiagoan erabiltzen dute.

2.13.- Euskadira etortzen diren turistak, bizilekuaren eta bidaiaren antolaketa araberako. 2012. urtea.

Pakete turistikoa normalean errepide bidez ez datozen turistek erabiltzen duten produktua da, horregatik, Euskadi bisitatu duen merkatu frantsesean, 1.850 turistek bakarrik erabiltzen dute, dauden 962.459tik.

Munduko beste herrialdeetan bizi diren beste turistek, pakete turistikoa hau gehiago erabiltzen dute, 21.286




erabiltzaileekin, portugaldarrek jarraituz, 20.392 paketerekin eta azkenik gainerako Europakoek 20.308ekin.

2.14.- Euskadira etortzen diren turistak, bizilekuaren eta norako Lurralde Historikoaren arabera. 2012. urtea

Norako Lurralde Historikoa merkatuen arabera aldatu egiten dira. Euskaditik hurbilen dagoen merkatu frantsesa Arabaraino iristen da eta zenbaki aipagarriekin.

Arabara etortzen diren frantsesen %10,8 a, turisten 104.093 suposatzen dute, Gipuzkoan gelditzen direnak 560.141 dira eta Bizkaian 295.373.



Arabara garrantziarekin iristen den bigarren merkatua portugaldarra da, 11.174 turistekin, eta alemaniarretik oso gertu 9.947 turistekin.


Frantziatik eta munduko beste herrialdeetatik datozen turistak, Gipuzkoa aukeratzen dute gehien bat. Erresuma Batua, Alemania, Italia, Portugal, Belgika, Holanda, gainerako Europa, Iberoamerika eta Ipar Amerikakoak ordea, Bizkaia nahiago dute.

Lurralde Historikoa zehaztu ez duten 8.033 turistak, grafikatik baztertu dira, informaziorik ematen ez dutelako eta %0,5 a bakarrik irudikatzen dutelako.


2.15.- Euskadira etortzen diren turistak, bizilekuaren eta norako turistikoaren arabera. 2012. urtea

Norako turistikoaren sorta handitzean, ikusi daiteke, frantses gehienak Donostia/ San Sebastián aukeratzen dutela norako nagusi bezala (286.921), Euskal Kostaldea osatzen duten herriek jarraituz (240.756), hauen artean, Hondarribia, Zarautz, Getaria eta Zumaiak etorkin gehienak dituztenak direlarik. Hirugarren postuan Bilbo dago 196.435 turistekin, eta gero Euskadiko barnealdeko herriak 139.823 turistekin. Vitoria/ Gasteiz 92.110ekin kokatzen da eta azkenik Arabar Errioxakoak 1.908 turistekin.

Norako turistiko bakoitzeko turista bolumena ezagutzeak duen garrantzia dela eta, merkatu banaketako grafika eta gero, beste bat aurkeztzen da, norako turistiko ezberdinetara datozen merkatu ezberdineko turisten balio absolutoeekin. Grafika honetan, merkatu frantsesa ezabatu da, bere tamaina handiak ez baitzuen gainontzeko norakoen datuak zehazki ikusten uzten.



■ Vitoria / Gasteiz ■ Bilbao ■ Donostia / San Sebastián
■ Euskal Kostaldea / Costa Vasca ■ Barnea / Interior ■ Errioxa Arabarra / Rioja Alavesa



■ Vitoria / Gasteiz ■ Bilbao ■ Donostia / San Sebastián
■ Euskal Kostaldea / Costa Vasca ■ Barnea / Interior ■ Errioxa Arabarra / Rioja Alavesa

2.16.- Euskadira etortzen diren turistak, bidaiaren arrazoiaren arabera. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa- Euskadi 2008 – 2012



2012ko turismoaren zati handiena, %64, aisian oinarritutako ereduak sartzan da Euskadira (1.112.192 turista). Gainerakoak, lana eta arrazoi pertsonalen artean banatzen dira. Kinada nagusi hauek gain, Euskadira etortzeko motibazioak gutxi dira.

Merkatu turistikoaren berreskuraketa, oporraldietan eta aisian oinarritua dago gehien bat.

Lanagatik arrazoiak, Euskadira etortzen diren turisten % 6,7, 1.177 turistetan

jeitsi dira. Ikasketengatik egiten dutenak %2,1 dira 37.082 turistekin, aurreko urtean baino 12.181 gehiago. Arrazoi pertsonalak turisten %15,3k adierazten dituzte (267.216), 2011ean baino 6.182 gehiago. Azkenik, turisten %4,3ak, beste arrazoiengatik etortzen dira, eta hauek ere 12.522 bidaiaritan igo dira.

Bai Estatuan bai Euskadin, arrazoiaren araberako eskaera turistikoak antzeko eredu bat mantentzen du, aisiaren arrazoiak delarik nagusia. Euskadin aisiaren arrazoiak %60 gainditzen badu, Estatuan arrazoi hau garrantzitsuagoa da oraindik, bisita turistikoaren %85 batekin.



Oporraldi edo aisiko arrazoi honek, azken urteotan Euskadin jokaera aldakor bat dauka, Estatuan ordea, gorakako joera bat erakusten du. Estatuak aisiaren arrazoiarako joera izugarri bat erakusten du, eta hau eskaera turistiko konkretu batzuen isla baino ez da, hau da, eguzkia eta hondartzan

oinarritutakoak, Euskadiren kasuan indar gutxiago dutenak, bai azpiegitura faltagatik bai klimatikak.

Tradizionalki, Euskadira zetorren turismoaren artean salerosketen arrazoiak duen pisua garrantzitsua zen, eskaera turistikoaren zati garrantzitsu bat bideratuz. Gaur egun, nazioarteko krisi ekonomiko dela eta, honen pisua egonaldi turistikoaren %14,6ean kokatzen da, aurreko eragiketa baino puntu eta erdi bat gutxiago suposatzen duena, eta Estatuan daukan eraginaren bikoitza. Ezberdintasuna hau, euskal industriaren bizitasunaren eragina da alde batetik eta beste alde batetik, aisia, eguzkia eta hondartzako eskaera masiboko modelo faltagatik.

Bisita pertsonalen modeloekin antzekoa gertatzen da. Euskadik osasun aisiko eskaera bat dauka bizitasuna hartzen ari dena, eta ohiko bezeroak finkatzen dituen. Gainera, bere mugako egoerak eta mugimenduen joera iragazkor eta ia eskualdekoak, arrazoi pertsonalengatik etortzen diren fluxu turistikoak azaltzen ditu, Euskadin Espainian arrazoi honek duen pisua lau aldiz handiagoa delarik. Hala ere, salerosketen arrazoiarekin gertatzen den moduan, pisu erlatibo handi honek zer ikusia dauka aisi modelo masiboen faltarekin.

Euskadiko eskaera turistikoak ez bezala, Estatukoak azken urteotan, iraunkor mantendu du bere eskaeraren motibazio egitura.


2.17.- Euskadira etortzen diren turistak, bidaiaren arrazoiaren eta sarbidearen arabera. 2012. urtea

Euskadira etortzen diren atzerriko turistak bidaiaren arrazoiarengatik eta sarbidearengatik aztertuz, antzeman daiteke turistek edozein dela arrazoa, nahiago dutela lur bidea norakora joateko era bezala.

Zehatzago aztertuz arrazoiak lana edo salerosketak direnean, aire bideak indar gehiago hartzen duela esan daiteke, lur bidearen gehiengoaren aurrean, baina noski, gainditu gabe, 33.000 turistako aldea dutelarik (143.961 errepede bidez eta 110.905 aireportu bidez).

Ikasketaren arrazoiarengatik errepede bidez datozen turistak, aurten bikoiztu egin dira, 21.572 turistara iritsiz. Aire bidez etortzen direnak ordea, %10,8ko atzerapen bat jasan dute, 15.423 turistetara jeitsiz.

Aire bidean, arrazoi pertsonalak (zerbitzu pertsonalak) %36 bat igo dira aurreko urtearekin konparatuz, ia 47.000ra iritsiz, hala ere, zenbaki hau errepede erabiltzen dutenena baina askoz txikiagoa da, 220.000.



■ Errepidea/Carretera ■ Aireportua/Aeropuerto ■ Itsasontzia/Barco


Beste arrazoiengatik, arrazoi pertsonalengatik turistek daukaten jokaera oso antzerakoa da, baina sarbide desberdinen arteko ezberdintasunak handiagoak dira (70.233 errepede bidez eta 3.836 aire bidez).

Itsas bidea erabiltzen duten turisten %90 a, oporraldi eta aisiaren arrazoiengatik egiten dute, %32,3 jeitsiz. Aisiaren arrazoi honek interurteko %22,3ko hazkunde bat jasan du, aire bidezko turistetan, eta %2,2ko beherakada bat errepede bidezkoetan, hala ere, azken hauek, aire bidezkoek baina 450.000 turista gehiagoko saldoa mantenduz.

2.18.- Euskadira etortzen diren turistak, bidaiaren arrazoiaren eta bizilekuaren arabera. 2012. urtea

Turistak bidaltzen dituzten merkatuetan arrazoi ezberdinak duten pisua aztertzeko, berriz ere, merkatu frantsesa banatzen da, ain handia izanik, beste merkatuen azterketa nahasten baitu.

Ikus daitekeen bezala, aisiaren arrazoiak turista frantsesen %59,6 a biltzen du, interurteroko galera %2,3koa delarik. Euskadi arrazoi pertsonalengatik 208.613 frantsesek bisitatzen dute, frantses guztien %21,7 a, aurten %%5,9 bat igoaz. Hirugarren postuan lanaren arrazoi dago, frantsesen %11,7 ekartzen dituelarik, 2011rekin konparatuz %21,7 igoaz.



Ikasketen arrazoiak, Euskadira turista frantsesak ekartzen

dtuen arrazoiak baxuena da. %1,2 irudikatzen du eta bere interurteko aldaketa %103 batean dago, hau da, aurreko urteko turistak bikoiztu egin dira.

Aurrekoetan ez bildutako gainerako arrazoiak %5,8 bat irudikatzen dute, interurteko %39,6ko igoera bat ekartzen dutelarik.


Bidaiaren arrazoaren arabera, turista frantsesak bere bolumena handitu dute, aisia eta oporreetatik datozenak ezik.

Merkatu guztien ezaugarri nagusia, aisiaren arrazoiaren bolumen handia da, beste arrazoiarekin alderatuz, kasu batzuetan lanaren arrazoiarengatik etortzen diren kolektibo garrantzitsu bat atzean dutelarik. Gainontzeko arrazoiak ez dira esanguratsuak inongo merkatuetan.

Erresuma batuko turisten %73,9ak, Euskadi aisia eta oporreetatik etortzen da eta % 14,1 lanagatik. Lehenengo interurteko hazkundea %23,4koa izan da, bigarrenenak, aldiz, %26,2ko beherakada bat jasan du. Gainontzeko arrazoiak kolektibo honetan %34ko galera bat izan dute aurten.

Alemaniarrek arrazoi nagusien artean desberdintasunak gutxitzeko joera nabarmentzen dute, aisiagatik %55,6 a eta lanagatik %30,5 a datozelarik. Aisia %6,2 bat jeitsi da eta lanaren arrazoiak, aldiz, %1,9 igo da.

Merkatu portugaldarrak desberdintasunak gehiago gutxitzen ditu, aisiak turisten %49,7 irudikatzen duelarik eta lanak %32,2. Hazkundeei begira, kasua hau merkatu alemaniarren antzekoa da, aisia %14,1 jeisten delako eta lana %9,5 igo.



Aurreko merkatuak eta Gainerako Europakoak, turista gehienak ekartzen dituztenak dira, eta beste herrialdeek baino, aisiaren arrazoiaren proportzio txikiagoa eta lanaren arrazoiaren proportzio handiagoa dutelako. Gainerako Europako kasuan, aisiarenak %64,4 suposatzen dute eta lanarenak %25,7 eta kolektibo honetan gainera interurteko hazkundea positiboa izan da bietan (%29,3 eta %12,6 hurrenez hurren).


Gainontzeko herrialdeak antzerako moduan jokatzeko dute, arrazoi nagusiaren (aisia) eta beste arrazoiaren artean ezberdintasun handiagoak azaltzen.

2.19.- Euskadira etortzen diren turistak, bidaiaren arrazoiaren eta ostatu motaren arabera. 2012. urtea

Bidaiaren arrazoiaren eta ostatu motaren arteko erlazioak, arrazoi ezberdinekin lotutako jokaera bereizgarriak erakusten ditu.

Aisia eta oporregatik etortzen diren turistak, erdiak baina gehiagok, hotela erabiltzen dute, kanpinak jarraituz, familia eta lagunena gero, eta pisu gutxiagorekin alokairuzko eta berezko etxebizitzak.

Lanagatik bidaiatzen dutenek hotela aukeratzen dute orokorrean.




Ikasketengatik datozen turistak hoteletan eta alokairuzko etxebizitzetan banatzen dira. Ezberdintasuna honek, egonaldiaren iraupenarekin dauka zer ikusia. Egonaldi laburretan ikasleek hotela aukeratzen dute eta egonaldia gora doan ahala, ostatu mota alokairuzko etxebizitza izan ohi da. Kolektibo honen barruan kanpina erabiltzen duten %20 bat ere aurki dezakegu, uda sasoian gertatzen den egoera, beste bi ostatu moten alternatiba bezala, ostatu mota merkeagoa eta eguraldi onarekin atseginagoa delarik, pertsona gazteen artean batez ere.

Arrazoi pertsonalengatik etortzen direnen artean, familia eta lagunentzako ostatu hartzea da ostatu mota nagusia. Kontuan hartu behar da, zerbitzu pertsonalen epigrafean familia eta lagunei bisitak barneratuta daudela. Bigarren aukera bezala hotelak aukeratzen dituzte eta hurrengoak beste ostatu motak dira.

Besteetan barneratuta ez dagoen arrazoiaren bat adierazi duten turistek, ostatu mota bezala besteetan barneratu gabeko beste ostatu motak aukeratzen dituzte eta bigarren bezala hotela.

2.20.- Euskadira etortzen diren turistak, egonaldiaren iraupenaren arabera. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa- Euskadi 2008 - 2012

Atzerriko eskaera turistikoa 2012an egonaldi oso laburrek menderatzen dute, aurreko urteko proportzio berdinean ia. Ostatu-gau bateko turistak (%39,3) aurten 6.300 bidaiaritan jeitsi dira. 2tik 3 bitarteko ostatu-gaukoak 13.905etan igo dira ordea (%34,9), egonaldi motzetako turisten 7.605eko interurteko saldo




positibo bat ekarri. Bestalde, aste bat baino gehiagoko egonaldia egiten duten turistek %8,2 irudikatzen dute, azken urtean gutxienez 18.000an hazi direlarik.

1,2 eta 3 gauko egonaldiak oso arruntak dira, asteburu pasako edo zubietakoak.

Ostatu-gau bateko egonaldiak aurreko urtearekin alderatuz %0,9 jeitsi dira, 2 eta 3koak %2,3 igo dira, aste batekoak %13,8 jeitsi dira, bi asteak %11,1, eta 16tik 30erakoak %64,6 jeitsi dira eta hilabete baino gehiagokoak %26,3 jeitsi dira.

Turisten ostatu gauen egitura Euskadin, oso bestelakoa da Espainian atzerriko turistek erakusten dutenarekin alderatuz. Estatuan 4-7 bitarteko ostatu-gaukoak dira nagusiak, hiru egunetik gorako bisitak %80 suposatzen dutelarik, hauek Euskadin %26era ez dira iristen ordea.

Bi aste baino gehiagoko egonaldiak dira antzekoenak. Baina hala ere ikus daiteke eredu tusitiko oso ezberdinak dituztela. Euskadi gertuko inguruaren oso mendekoa da, sarbide azkarra, errepide bidezkoa, hirietako aisia, arrazoi kultural eta pertsonaletan oinarritutako eredia dauka, Espainiako eguzki eta hondartzaren bisitaria ez dagoelarik eta egonaldi behar ezberdinak eta sarbide ezberdinak dituelarik.




Ostatu-gau bateko egonaldia egiten duten turistak oso pisu ezberdina dute Euskadin eta Estatuan (%39,3 eta %5,4 hurrenez hurren). 2 eta 3 gaukoak ere oso ezberdinak dira, %34,9 Euskadin eta %14,7 Estatuan. 4tik 7ra Euskadin %17,7 dira eta Estatuan %47,4, 8tik 15 ostatu-gaurako egonaldien pisua Euskadin %5ekoa da eta Estatuan %24,6. 16tik 30 gaurerako zatian, Euskadin %2,3 bat daukagu eta Estatuan %5,3, eta hilabetea baino gehiagoko egonaldietan Euskadin %1 eta Estatuan %2,6.

2.21.- Euskadira etortzen diren turistak, egonaldiaren iraupenaren eta sarbidearen arabera. 2012. urtea

Egonaldiaren iraupena eta sarbidearen arabera, oso jokoera ezberdinak jarraitzen dituzte.

Aire bidezko sarbideak lur bidezkoak baino egonaldi luzeagoak ekartzen ditu. Ostatu-gau bakarreko egonaldirik ia ez du sortzen, eta gehienak 2 eta 15 bitarteko ostatu-gauetara banatzen ditu. Bere bisita gehienak 4 eta 7 bitarteko ostatu-gauen artean daude.

Bi aste baino gehiagoko egonaldiak, Euskadira etortzen diren atzerriko turistak %15,8 batek egiten ditu.



Bestalde, lur bidezko sarbideak patroï orokorrari egitura ematen dio, ostatu-gau bat eta hiru arteko egonaldiak nagusitzen dira, eta aste bat baino gehiagoko egonaldi gutxi sortzen dira.

2.22.- Euskadira etortzen diren turistak, egonaldiaren iraupenaren eta ostatu motaren arabera. 2012. urtea


Egonaldi laburretan hotela da ostatu motarik erabiliena eta logikoa den bezala eta bere kostu altua dela eta, egonaldia luzatzen doan hala, turistek ostatu mota merkeagoak bilatzen dituzte.

4tik 7 bitarteko ostatu-gauetako egonaldietarako, hotelaren erabilera beheraka joaten hasi da, eta familia eta lagunaren dohako ostatu motak eta berezko etxebizitzarenak igotzen hasi dira. Hotela alokairuzko etxebizitzengatik ere aldatzen hasi dira batzuk.

8tik 15 bitarteko ostatu-gau egiten dituzten turisten erdiak (%49,8) dohako ostatu moten hazkundera irudikatzen dute (berezkoak eta alokairuan), hotelen ostatu motaren beherapena eta alokairuzko etxebizitzaren igoera.


Egonaldiaren iraupena gora doan elean, ostatu mota merkeagoetara lekualdaketa bat gertatzen da. 16tik 30 bitarteko egonaldietan hotelen erabilera, berezko etxebizitzaren erabileraren azpitik aurkitzen da, eta famili eta lagunaren etxebizitzek alokairuari lekua utziz.

Hilabete bat gainditzen duten egonaldietan, hotelen pisua %5,6raino jeitsi da, berezko etxebizitzak baino 4 aldiz gutxiago, egonaldi luzeko turisten %23,3k erabiltzen dutelarik. Alokairuzko etxebizitzaren erabilera %40ean mantentzen da, eta familia eta lagunaren etxebizitzena %27 batera jeisten da.



2.23.- Euskadira etortzen diren turistak, ostatu motaren arabera. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa- Euskadi 2008 - 2012

Azken urteetako joerari jarraituz, turistek hotela nahiago dute gehien bat. 2011ean ostatu mota honek hazkunde handi bat jasan zuen %21,2 batekin eta aurtan berriz nabarmendu da %1,7 batekin. Famili edo lagunaren etxebizitzaren erabilpenak hazkunde handi bat izan du 42.000 turista baino gehiagokoa.




Alokairuzko eta berezko etxebizitzak ez dira Euskadiko turisten artean oso onartuak izaten, %2,7 eta %1,5 batekin hurrenez hurren. Egia da, modelo honetan dagoen eskaintzak ez duela bere hazkunde bultzatzen.

Aurtan galera txiki bat jasan duen modelo bakarra beste ostatu motena da, %1,9ko beherakada batekin.

Oro har, Euskadiko eta Estatuaren ostatu moten egituraren eskaera antzekoa da: hotelaren nagusitasuna eta leku handi bat dohako etxebizitzaren erabilierarentzat. Desberdintasunen artean, Euskadiko eskaeran alokairuak duen pisua txikia eta handiagoa beste ostatu motekin.

Azken urteotan bi inguruek ostatu motaren egitura nahiko egonkorra mantendu dute. Nahiz eta aldaketa asko ez izan, joera ebolutiboak gogokoen diren ostatu moten ezarpena dakar, batez ere hotelen azpiegituraren pisua, bi inguruetan.



- Beste alojamendu batzuk/ Otros alojamientos
- Kanpin/ Camping
- Etxebizitza senideak, lagunak/ Alojamiento familiares, amigos
- Etxebizitza alokairuan/ Vivienda alquilada
- Ezaugarriko etxebizitza/ Vivienda en propiedad
- Hotelak edo antzekoak/ Hoteles o similares

2012. urte honetan, ostatu motaren banaketak Espainiara datozen atzerriko turisten artean, hotel eta alokairuzko etxebizitzaren eskaeraren igoera bat ekartzen du, eta gainontzeko ostatu moten beherakada bat. Euskadin, ordea, zehaztutako beste ostatu motek bakarrik galtzen dute pisua.


2.24.- Euskadira etortzen diren turistak, bidaiaren antolaketaren arabera. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa- Euskadi 2008 – 2012

Euskadira etortzen diren turistak, bidaiaren antolaketaren arabera, pakete turistiko gabe etortzen dira ia guztiak (%94,0).

Aurreko urtearekin konparatuz gertatutako eboluzioa, ikusitako bi antolaketaren artean dezima batzuen aldaketa txiki bat baino ez du irudikatzen. Antolaketan dagoen egonkortasuna oso sendoa da.

Teknologiaren erabileraren hazkundera, internetena adibidez, bidaien antolaketa pertsonalerako mesedegarria da, informazioa eta salneurri lehiakorragoak lortuz.


Antolaketaren interurteko aldaketa ez da soilik dezima batzuetan aldatzen, baizik eta azken bost urteetan iraunkor mantentzen da, pakete gabeko turistak %93,9 eta



%94,8 artean mantentzen direlarik, eta pakete turistikoa antolaketa mota bezala erabiltzen duten turistak %5,2 eta %6,1 bitarte daudelarik.

Antolaketa motan egonkortasun hau Estatuko turistetan ere mantentzen da, baina Euskadin baino proportzio handiagoan.

Estatuan, pakete turistikoa erabiltzen ez duten 3 turistagatik erabiltzen duen bat dago. Bestalde, pakete turistikorekin bere bidaiari antolatzen duten turistak, etengabeko hazkunde bat jasaten dute.




2.25.- Euskadira etortzen diren turistak, bidaiaren antolaketaren eta sarbidearen arabera. 2012. urtea

Bidaiari antolatzeko moduak, sarbidearekin erlazioa dauka, errepide bidezko turistek pakete turistikoa ez baitute erabiltzen, pakete turistikorekin, zerbitzu pribatuko autobusetan datozen turista gutxi batzuk kenduta.

Errepide bidez, pakete turistikoa gabe bidaiatzen duten turistak 1.190.734 dira, lehengo urtean baino %2 gehiago eta pakete turistikorekin bidaiatzen dutenak 37.798 interurteko %4ko beherakada batekin.

Aire bidez etortzen direnen artetik, 434.089 turistek pakete turistikoa gabe egiten dute, interurteko %11ko hazkunde batekin, eta pakete turistikorekin 65.029 izan dira aurreko urtearekin konparatuz %13,2 gehiago.

Itsas bidean, 17.084 turistek ez dute pakete turistikoa erabiltzen eta 1.697k bai. Itsasontzian bidaiatzen dutene artean pakete gabe egiten dutenen interurteko aldaketa -%30,9koa da eta erabiltzen dutenena -%46,6koa.





2.26.- Euskadira etortzen diren turistak, norako Lurralde Historikoaren arabera. Urteko bilakaera 2008 - 2012

2012an Euskadira etorri diren turistak, Gipuzkoako Lurralde Historikoa aukeratzen dute gehien bat, %50eko kuota batera iritsiz ia. Oso gertu Bizkaia dago, %42 batekin eta distantzia handira Araba %9 batekin.

Lehenago aipatu den bezala, badago gutxieneko bat Euskadiren barruan norakoa zehazten ez duena (8.033 turista).

2012ko gutxieneko hau, aurreko urteetan askoz handiagoa da, horregatik konparazio bat egitea ezinezkoa da, hauen pisua oso handia delako.


Hala ere, urteen joanean, norakoa zehazten duten turisten artean, antzeko banaketa bat ikusi daiteke, Gipuzkoa izanik norako nagusia, Bizkaia geroeta gertuagotik jarraituz, eta Araba oso urrunetik. Salbuespen bakarra 2008. urtean izan zen, Bizkaia Gipuzkoa gainditu zuenean.



2.27.- Euskadira etortzen diren turistak, norako Lurralde Historikoaren eta sarbidearen arabera. 2012. urtea

Ostatu-gauak Araban egiten dituzten turistak, errepide bidez etortzen dira gehien bat (124.042), interurteko %2,7ko aldaketa batekin. Aire bidez egiten dutenak lau aldiz gutxiago dira (29.896), azken urtean %40,5 hazi direnak, eta itsas bidez egiten dutenak ez dira mila turistetara iristen, azken urtean %40,4 galdu dutelarik.

Gipuzkoara datozenen sarbideak, Arabara datozenen antzerako proportzioak mantentzen dituzte, baina balio kuantitatibo handiagoekin. Errepide bidez 702.773 turista etortzen dira, aireportu bidez 139.101 eta itsasontziz 6.640. Lehenengo bi sarbideak %15,7 eta %23,2 hazi dira hurrenez hurren, eta itsasontzi bidez datozenak berriz, %33,8 jeitsi dira.




Bizkaiako Lurraldea bisitatzeko sarbideak, beste bi Lurraldeen banaketa desberdina adierazten dute, hauetan errepide bidezko turistek (395.492) aire bidezkoak gutxigatik gainditzen dituztelarik (328.484), eta itsasontzi bidez egiten dutenak 11.149ra iritsiz. Interurteko aldaketa %25ekoa da, %21,2 eta % -15ekoa hurrenez hurren.

2.28.- Euskadira etortzen diren turistak, norako Lurralde Historikoaren eta bidaiaren arrazoiaren arabera. 2012. urtea

Bidaiaren arrazoiak norakoarekin zer ikusia daukate.

Arabako turisten hiruren bat aisiagatik etortzen da, eta ia beste hiruren bat, lanagatik. Gainontzekoak, arrazoi pertsonalen eta beste arrazoiaren artean banatzen dira, lehenengoak gehiago direlarik.

Gipuzkoara datozenen %70ak, aisiagatik egiten du. Laneko arrazoiak Euskadiko beste Lurraldeetan baino garrantzi gutxiago daukate.




Bizkaian ere aisia da nagusi, Gipuzkoan bezala, baina lanagatik etortzen direnak garrantzi handiagoa dute.

Ikasketengatik datozen turistak gehien bat Bizkaiara datoz, %3,5eko proportzio batekin, hau da, 25.634 turista.

2.29.- Euskadira etortzen diren turistak, norako Lurralde Historikoaren eta egonaldiaren iraupenaren arabera. 2012. urtea.

Ondoko grafikan ikusi daitekeen bezala, egonaldiaren iraupena ez dago norakoaren menpe, bidaiaren arrazoiekin zer ikusi handiagoa dauka ordea.


Hiru lurraldeetan dagoen ezberdintasuna, Bizkaian ostatu-gau bateko egonaldietan dagoen beherakadan datza, beste gainontzeko ostatu-gau moten alde.



2.30.- Euskadira etortzen diren turistak, norako Lurralde Historikoaren eta ostatu motaren arabera. 2012. urtea

Euskadiko hiru Lurralde Historikoetan hotelen erabilera da nagusiena. Arabako Lurraldean, besteetan bezala, hotelen erabilera nagusitzen da, turista guztien erdia gairatuz. Laurden batek, famili edo lagunekin ostatu hartzea aukeratzen du, eta gainontzeko laurdena, kanpina, alokairuzko etxebizitza eta beste ostatu motetan banatzen da. Berezko etxebizitza ez da oso esanguratsua.

Gipuzkoako turistak Arabakoan antzerako banaketa bat dute, hotela



eta familia eta lagun en etxebizitzak, proportzio txikiagoan erabiltzen dira ordea, kanpina eta beste ostatu moten onurarako.


Berriz ere, Bizkaian, hotelen erabilera goraka doa, lanagatiko arrazoiagatik, eta gainontzeko ostatu motek pisua galtzen dute, alokairuak izan ezik, beste Lurraldeetan baino proportzionaltasun handiagoa duena.

2.31.- Euskadira etortzen diren turistak, norako Lurralde Historikoaren eta bidaiaren antolaketaren arabera. 2012. urtea

Bidaia antolatzeko modua ez dago norako Lurraldearekin lotuta, arrazoi en ondorio bat da gehien bat, eta sarbidearekin ere badu zer ikusia.

Gipuzkoan eta Araban sarbide nagusia errepidea denez, pakete turistikoaren erabilera urriena azaltzen dute, %3ko proportzio baten azpitik (3.395 Araban eta 23.245 Gipuzkoan).

Bizkaian, aireportu bideak garrantzia handiago hartzen duenez, pakete turistikoa erabiltzen duten turista gehienak kokatzen dira (77.758).



Pakete turistikoaren erabilera Araban, %0,8ko interurteroko beherakada bat jasan du, Gipuzkoan %15,9koa eta Bizkaian %30 bat igo da.

Bidaiaren antolaketa pakete turistiko gabe, interurteroko datuetan, hiru lurraldeetan igo egin da, Araban %3,3, Gipuzkoan %17,4 eta Bizkaian %21,5.


2.32.- Euskadira etortzen diren turistak, norako turistikoaren arabera. Urteko bilakaera 2008 - 2012

2012. urtean, nahiz eta Gipuzkoa Lurralde Historikoen artean norako nagusia izan, norako turistikoaren aldetik datuak aztertzean, Bilbo da turistek aukeratutako norako nagusia (%33), Donostia- San Sebastianek oso gertutik jarraituz (%29).

Vitoria/ Gasteiz da Euskadiko hiriburu bakarra, turisten %8 a bakarrik erakartzen dituena.


Atzerriko turistek eskatzen duten hirugarren norako turistiko garrantzitsuena, Euskal Kostaldea osatzen duten Gipuzkoako eta Bizkaiko herriak dira (%18).

Lurralde Historikoen mailan bazeuden 8.033 turista norakoa ez zutenak zehazten, eta norakoetan



sakontzen saiatzean, norako Lurralde Historikoa bai, baina udalherria zehazten ez duten 12.059 turista agertzen dira. Aurten turisten %1 suposatzen dute.

Lurralde Historikoen bilakaera aztertzen adierazi den bezala, Lurraldea zehaztu ez den kasuak, norako turistikoetaz hitz egitean nabarmenki hazitzen dira baita aurreko urteetan ere (%12,6 2011ean, %33,2 2010ean, %32,8 2009an eta batez ere 2008an %42,4 batekin).



2012an turisten %99aren norako turistikoaren informazioa lortzean, aurreko urtean bere norakoa zehaztu gabeko 200.000 turistak zonalde guztien artean banatu dira, norako guztietan hazkunde bat egon delarik.

Norakoak aztertuz (behar diren ardura guztiak hartuz zehaztu gabeko kasuen erakusleen garrantzi handia dela eta), azken bost urteetan Arabako hiriburuak turisten artean garrantzia gutxi izan duela ikus daiteke, hala ere, urtetik urtera gorakako joera bat erakusten du, 2011ean salto garrantzitsu bat emanez.

Bilbo izan da azken urteetan turisten norako gustokoena. 2008, 2009 eta 2010. urteetan turistak galdu ditu Donostia/ San Sebastian-en alde. Bilbok 2011ean gorakada handi bat izateaz gain aurten ere izan du (%46 eta %20 hurrenez hurren).

Donostia/ San Sebastian-ek urte hauetan gorakako joera bat mantendu du, 2011ean gehien bat, %48, 5eko gorakada batekin eta 2012an %15,8 batekin.

Euskal Kostaldea nahiago duten turisten jokaera, Donostia/ San Sebastian-ekoen joera berdina nabarmentzen dute, 2011ean %68,2 igoaz eta 2012an %13,6.

Barnealdeko norako turistikoaren zonaldeak, aurrekoek bezala jokatzen du, pisu txikiagoarekin baina hazkunde handiagoarekin, %129 2011ean eta %34,4 2012an.


Azkenik, Arabar Errioxako norako turistikoa dago, ia proportziorik gabekoa, 2008an %0,5, 2009an %0,2, eta 2010, 2011, 2012an %0,1ekin. 2009. urtean ia %69ko galera bat izan zuen eta 2010ean %44koa. Azken bi urteetan berreskuratu egiten da, %69 2011ean, eta %0,8 2012an.

2.33.- Euskadira etortzen diren turistak, norako turistikoa eta sarbidearen arabera. 2012. urtea

Norako turistikoa, sarbide nagusia errepidea da. Bilbo da hau aldatzen den norako bakarra, aire bidez turistak erdia sartzen delarik, hau delarik ere turistak erdiak lanagatik datozen hiria. Aurrerago esan den bezala, arrazoi hau zuzenki lotuta dago aire bidezko sarbidearekin eta hotelaren ostatu motarekin.

Itsas bidezko sarbideak Bilbora doazen turistak artean máximo bat lortu du (7.754), Donostia/ San Sebastian-ek (4.416) eta Euskal Kostaldeak gero (4.878) jarraituz.

Urteen joanean, airezko norako guztiak gora doaz eta errepide bidezkoak ere, Vitoria/ Gasteizko turistak ezik, errepidez %1,7 jeisten direnak. Itsas bidez denak jeisten dira, Euskal Kostaldea ezik, %5 bat igo baita.




2.34.- Euskadira etortzen diren turistak, norako turistikoa eta bisitaren arrazoiaren arabera. 2012. urtea

Norako bakoitzean dauden motibazioak aztertuz ikus daiteke, bakoitzeko jokaera desberdin bat dagoela.

Vitoria/ Gasteizera datozenak, gehien bat aisiagatik egiten dute (45.848), lanagatik datozenak jarraituz (443.690) eta urrunago zerbitzu pertsonalak (32.341) eta beste arrazoiak (13.514) daude.

Bere aldetik, Bilboko hirian, arrazoi nagusia aisia da 378.868 turistekin, lanaren arrazoiak jarraituz 96.866 turistekin.



Hau da lanaren arrazoiarengatik datozen turista gehienak taldekatzen diren norakoa. Ikasketen arrazoiarekin (20.993) eta zerbitzu pertsonalekin (69.666) berdin gertatzen da.

Aisiaren arrazoiarengatik datozen turisten gehiengoa Donostia/ San Sebastianen biltzen dira (393.100) eta zerbitzu pertsonalen zati garrantzitsu bat ere (61.935).

Euskal Kostaldeak aisiaren arrazoiarengatik etortzen diren turistak erakartzen ditu batik bat (212,277) eta arrazoi pertsonalengatik etortzen direnak ere bai (48.252).

Barnealdean, aisia eta lanaren arrazoiak parekatu egiten dira (8.308 eta 55.689 turista hurrenez hurren), Euskadiko empresa sarearen zati garrantzitsu bat bertan kokatzen baita. Norako honetan arrazoi pertsonalek ere garrantzia hartzen dute, 53.405 turistekin, eta beste arrazoiengatik datozenak bere kuota altuena lortzen dute hemen, 22.089 turistekin.


Arabar Errioxak, lanagatik etortzen diren turista gehiago ditu, baina datu hau ez da oso esanguratsua oso kuota txikia baitaude, 2.343 turista Arabar Errioxa guztian.

2.35.- Euskadira etortzen diren turistak, norako turistikoaren eta egonaldiaren iraupenaren arabera. 2012. urtea

Vitoria/ Gasteizen egindako egonaldien %77 a, egonaldi laburrei dagokie (70.185 ostatu-gau batekoak eta 35.158 bi eta hiru bitartekoak). Egonaldia gora doan hala, turistak behera dijoaz, 18.000tik 1.500era progresiboki.

Bilbora doazen turistak, orokorrean, bi edo hiru gau pasatzen dituzte (237.016), bigarren postuan ostatu-gau bat egiten duten 174.048 turistak daude eta gero 4tik 7ra bitarte egiten dituzten 114.393ak.

Egonaldi luzeagoak asko jeisten dira, baina ez ain indize baxuekin. 8tik 15era bitarteko ostatu-gauetan 28.483 turista daude, eta 16 eta 30 bitarte 6.152 baino gehiago.



Bilbon da, gau bakarrekokoak kenduta, beste gainontzeko geruzatan turista gehien biltzen diren norakoa.

Ostatu-gau bakarrekoko egonaldien gehiengoa Donostia/ San Sebastianen ematen da, 186.000 turista baino gehiagorekin. Gainontzeko geruzak Bilboren antzerako jokaera erakusten dute, baina turisten artean eragin gutxiagorekin (196.401 2 eta 3 ostatu-gauetan, 92.915 4 eta 7 bitarte, 20.045 8 eta 15 bitarte, 6.721 16 eta 30 bitarte eta 5.023 turista hilabetetik gora).

Euskal Kostaldeak eta Eskadiko barnealdeak Donostia/ San Sebastian eta Bilboko proportzio berdinak mantentzen dituzte, baina guztizko baxuagoekin, eta estrato garrantzitsuenean, ostatu-gau batekoa, beherakada txikiagoarekin, eta horregatik zona bakoitzeko banaketari eragiten dio. Euskal Kostaldean ostatu-

gau batekin 140.881 turista daude, 2 eta 3 bitartean 87.040, 4 eta 7 bitartean 53.631, 8 eta 15 bitartean 23.376, 16 eta 30 bitartean 4.941 eta hilabetetik gorakoan 1.806. Barnealdean ostatu-gau batekin 107.835 turista daude, 2 eta 3 bitartean 46.047, 4 eta 7 bitartean 20.606, 8 eta 15 bitartean 7.051,, 16 eta 30 bitartean 8.130 eta hilabetetik gorakoan 2.128.

2.36.- Euskadira etortzen diren turistak, norako turistikoaren eta ostatu motaren arabera. 2012. urtea

Norako turistikoak ostatu motarekin alderatzean, jokaera desberdintasun hauek ikusten dira:


Vitoria/ Gasteizen turisten erdiak hotela eta famili edo lagun etxebizitza erabiltzen du. Gainerako %26,7ak kanpina, beste ostatu motak eta alokairuzko edo berezko etxebizitzaren artean banatzen da.

Bilbon ostatu mota nagusiak, hotela, %70 bat irudikatzen du ia, eta bigarren postuan familia edo lagun etxebizitza aurkitzen dugu ere. Bi ostatu mota hauek Bilbora datozen turisten %88,5 bat suposatzen dute. Gainerako %11,5 a gainontzeko ostatu moten artean banatzen da, banatuta ez dutelarik %4 ere irudikatzen.

Donostia/ San Sebastian ez da besteen oso ezberdina. Hotela ez du Bilbon bezain garrantzi handia, %55,9 batean geldituz, baina familia eta lagun etxebizitzek Bilbon baina pisu handiagoa dute. Gainontzeko ostatu motek %23,7 bat bateratzen dute, kanpinak garrantzi gehien duelarik %10 batekin.

Euskal Kostaldeak, aurreko norakoen jokaera ezberdina dauka ostatu motaren gainean. Nahiz eta, ostatu mota nagusia hotela izan, gainontzeko ostatu motekin ezberdintasunak asko txikitu dira. Bigarren postuan kanpinak eta beste ostatu motak, familia eta lagun etxebizitzak gainditu dituzte. Norako honek besteetatik desberdintzen duen ezaugarri bat dauka, berezko etxebizitzaren zenbaki handiagoa.

Azkenik, barnealdeko norakoan, hotela da nagusia, kasu honetan beste ostatu mota batzuk erabiltzen dituzten turistek jarraituz. Hirugarren postuan familia eta lagun etxebizitzak daude. Hiru ostatu mota nagusi hauek turisten %85,3 a osatzen dute. Beste %14,7an, kanpinak %10 suposatzen du.




2.37.- Euskadira etortzen diren turistak, norako turistikoaren eta bidaiaren antolaketaren arabera. 2012. urtea

Bidaiaren antolaketa norako turistikoaren arabera aztertuz, ikus daiteke pakete turistikoak oso garrantzi gutxi duela.

Pakete turistikoak, proportzio esanguratsu bat jasotzen duen norako turistiko nagusia Bilbo da, %13,1ekin, hau da, 75.426 turistekin.

Donostia/ San Sebastianen %4,4ko pisua dauka, 22.304 dira pakete turistikoa erabili duten turistak.

Bi norako hauek, pakete turistikoa erabiltzen duten turisten %93,5 biltzen dute.



■ Pakete turistikorik gabe/ Sin paquete ■ Pakete turistikoaz/ Con paquete

3. EUSKADIRA ETORTZEN DIREN ATZERRIKO TXANGOZALEAK


Euskadik duen mugako izaerak eta konkretuki mugaren bi aldeen arteko erlazio eta harremanen eskualdeko jokaerak, txangozaleen aktibitate handi bat eragiten du. Honi turismo masibo bat ez dagoela gehitzen badiogu, adibidez eguzki eta hondartza bezalakoa, atzerriko bisiten %85a ostatu-gaurik gabekoa dela antz eman daiteke. Mugatik Donostia/ San Sebastian-en gertutasunak, eta batez ere, muga honen inguruan dagoen gune urbano garrantzitsuak, funtsesko suertatzen dira erlazio komertzial, laneko eta aisikoetan, fluxu konstanteetan isladatuz.

Txangozale hauen jokaerak, aldagai ezberdinen aurrean, erakutsiko digu, badaudela gurutzatze batzuk ez dutenak interesik, txangozaleen gutzitza ematen duten emaitza berdinak baitituzte.


Aldagaiak hauek dira: sarbidea, errepide bidezko txangozaleak %99,8 bat osatzen dutelarik, turisten jatorrizko herrialdea edo bizilekua, %94a txangozale frantsesak direlarik, eta Lurralde Historikoa, Gipuzkoa izanik norako nagusia (%96,5).

2012an Euskadira 9.740.000 txangozale inguru iritsi dira. Honek beherakada txiki bat suposatzen du, %0,3, edo hobeto esanda, iraunkortasun bat, aurreko urtean lortutako bolumenarekin alderatuz. Aurreko urtean merkatuak hasi zuen berreskuraketa sendotuz.

Euskadira etorri diren atzerriko txangozaleak, ikerketa honen hasieratik, 1998an, hazkunde jarraitu bat jasan dute. 2007 eta 2008. urteetan beherakada txiki batzuk egon ziren, %3,1 eta %1,8 hurrenez hurren, ondorengo urteetan berreskuratuz. 2011. urtean %13,8ko gorakada nabarmen bat egon zen, 9.800.00 atzerriko turistetara iritsiaz ia.




Txangozaleen kasuan, norako bakarra dagoenez, norako nagusia Euskadi edo norakoa Euskadi datuen aldaketak ez du eraginik, beraz seriea osoa mantentzen da, hausturarik gabe.



3.1.- Euskadira etortzen diren txangozaleak hilabeteko. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa- Euskadi 2008 – 2012

Txangozaleen seriean hausturarik ez dagoenez, 1998tik hileroko eboluzioarekin grafika bat aurkeztu daiteke, bertan ikus dezakegu, hilabeteek urteetan zehar antzeko jokoera bat mantentzen dutela, urteroko turisten bolumenaren hazkundearekin noski.



Udan bisitak izugarri igotzen dira, abuztuan batez ere, udaberrian eta udazkenean pixka bat gutxiago. Otsaila elkarrekintza gutxien daukan hilabetea da, maila gorenean dagoen hilabetearen heren batekin.

Urtaroko izaera honi aisiak eta salerosketa erlazioak laguntzen diote, eskualdeko hartu-emanekin, eta ez nazioartekoekin, gehien bat. Hala ere, urtaroko izaera hau txikiagoa da turisten kolektiboan baino.

Interurteko aldaketa txangozaleen artean ez da homogenea urtean zehar. Aldaketa positiboa da (hazkundera) otsaila, martxoa, ekaina, azaroa eta abenduan. Gainontzeko hilabeteetan (urtarrila, apirila, maiatza, abuztua, iraila eta urria), txangozaleen zenbakia gutxitu egiten da.

Txangozale gehien galtzen dituen hilabetea urria da %19,3ko beherakada batekin, 177.192 bisitari, abuztuko beherakadak jarraituz 111.760 txangozaleekin (%6,9).

Aitzitik, azaroa da gorakada handiena jasaten duen hilabetea, %13,5eko interurteko gorakada batekin (78.786 txangozale gehiago).

Abenduko txangozeleen gorakada ez da atzean geratzen %11,1 batekin (76.487), batez ere hispaniar-frantses mugako bi aldeetako prezioen desberdintasuna dela eta, txangozale frantziar askok bere gabonetako erosketak egiteko gipuzkoako lurraldera etortzen direlarik.

2012. urte honetan, otsailak, martxoak, ekainak, uztailak, azaroak eta abenduak txangozaleen record historikoa lortzen dute.

Balio absolutoetan txangozaleen aldaketa urte honetako hilabeteetan zehar, otsaileko 577.457 sarreretatik abuztuko 1.502.169 sarreretara doaz, 924.712ko aldaketa.

Beharakada bat izan den hilabeteetan gertatutako txangozaleen galera -314.905koa da. Aldiz hazkundera egon den hilabeteetan irabazitakoak 283.656koa izan dira, beraz saldo negatibo bat egon da -31.249 txangozaleetakoak.

Abuztuak 2004tik ez zuen beharakada bat jasaten.

Estatuko eta Euskadiko txangozaleen informazioa

konparatuz, ikusi dezakegu hilabeteetako jokaera antzekoa dela bietan, abuztuan izan ezik, ezberdintasun handiagoa dagoen hilabetea.


Gainontzeko hilabeteetan jokaera ia berdina mantentzen dira, urteetan zehar desberdintasun gutxi batzuekin, bai Euskadin bai Estatuan. Ezberdintasun hauek ez dira oso esanguratsuak, eta egon ezker Euskadin eta Estatuan ematen dira.


Uztailak 2012an desberdintasun esanguratsu bat erakusten du, Euskadiko pisua %12,7koa delarik eta Estaturakoa %11,3.

Abuztuan daude ezberdintasun handienak, 2009an Euskadin %16,6 eta Estatuan %15,4, 2010an Euskadin %16,9 eta Estatuan %15,1 eta 2011ean Euskadin %16,5 eta Estatuan %14,6.

Irailako desberdintasuna 2012an dago, Euskadik %7,8ko pisua duelarik eta Estaturak %9,3.

Urrian 2011ean, Euskadik %9,4ko pisua du eta Estaturak %7,7 eta azkenik abenduak 2010ean Euskadin %8,1eko pisua du eta Estaturak %6,8koa.






3.2.- Euskadira etortzen diren txangozaleak sarbidearen arabera. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa- Euskadi 2008 – 2012

Errepide bidezko txangozaleak dira txangozaletasun guztiaren jokaera markatzen dutenak, aire eta itsas bidezko sarrerak oso gutxi baitira.


Azken 5 urteetan, errepide bidezko txangozaleak gorakako joera bat adierazten dute, azken urtean ezik, joera egonkortu egiten delarik 23.588 txangozaleko (%0,2) beherakada batekin.



Euskadin errepide bidezko txangozaletasunak %99,5 a gainditzen du.


Estatuarekin konparatuz, ezberdintasunak handiak dira, Estatuan aire bidezko txangozaletasun handi bat dagoelako, salerosketen bidaiak direla eta gehien bat, eta baita ere itsasontzi bidez datozen txangozaleak dirala medio, hauek itsa-bidai handietan datozte Estatuako portu ezberdinetara, eta ez dute ostatu-gaurik egiten, argi orduak erabiltzen baitituzte bisitak egiteko eta gauak nabigatzeko.


Aurreratu den bezala, atzerriko txangozaletasuna Euskadin errepidezkoa da oro har.



3.3.- Euskadira etortzen diren txangozaleak bizilekuaren arabera. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa- Euskadi 2008 – 2012


Aurreratu da baita ere, Euskadiko txangozaletasuna frantsesa dela batik bat, %93 a baino gehiagoko irudikapen batekin azken bosturtekoan.





Estatuaren jokaera, txangozaleen jatorriaren arabera, egonkorra da baita ere, baina jatorriko lurralde aniztasun handiagoarekin.

Merkatu frantsesak, Euskadin merkatu nagusia, Estatuan ez du txangozaleen %60 a gainditzen.




Estatuan, Merkatu portugaldarrak, txangozaleen %26ko media batekin, garrantzi esanguratsu bat dauka. Logikoki, Portugal, mugako lurraldea delako.

Garrantzi gutxiagorekin, baina gainerako Europako txangozaleak Estatuan %5 batean daude. Aire bidezko txangozaletasunaz gain, laneko egun bateko bidaiak egiteko aukera ematen duena, Gainerako European beste mugako herrialde bat barneratzen da, Andorra.

3.4.- Euskadira etortzen diren txangozaleak bisitaren arrazoiaren arabera. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa- Euskadi 2008 – 2012

Txangozale atzerritarrek Euskadi bisitatzera bultzatzen dituzten arrazoi nagusiak, lau teorikotan biltzen dira, hauek hiru bilakatzen direlarik.

Euskadiko txangozaleak mugitzen dituen arrazoi nagusia “erosketak” dira. 2008, 2009 eta 2010. urteetan arrazoi hau “Zerbitzu pertsonalen” arrazoiean barneratua zegoen. Datu hauek ematen dituzten estatistika eragiketen aldaketa metodologikoak, nahasketa bat eragin dute, batzuetan “erosketak” arrazoiak “zerbitzu pertsonal”-en barruan zegoelako eta besteetan “beste arrazoiak”-en barruan. Horregatik, “arrazoi pertsonalak” 2011etik aurrera progresiboki beheraka doaz, eta “beste arrazoiak” goraka.




Bi arrazoi hauek bateratuz, 2008an 4.976.344 txangozale ditugu, 2009an 5.464.083, 2010ean 5.652.782, 2011ean 5.925.244 eta 2012an 6.605.572, honek interurteko hazkundeak dakartzalarik, %9,8 2009an. %3,5 2010ean, %4,8 2011ean eta %11,5 2012an.

Bigarren postuan aisiaren arrazoiak dago, 2008tik 2010era %10,4ko beherakada txiki bat izan duelarik, 2011ean %42,8 igotzeko, azkenik 2012an %12,3 bat jeisten bukatzeko.

Lanaren arrazoiarengatik datozen txangozaleak nahiko egonkor mantentzen dira, %7,1eko jeitsiera batekin 2009an, %0,3ko igoera bat 2010ean, %9,5eko gorakada bat 2011ean eta %5,9ko beherakada bat bukatzeko 2012an.

Estatuarekin konparatuz eta arrazoi pertsonalak eta beste arrazoiak erosketak biltzen dituen arrazoi bakar bat bezala aintzakotzat hartuaz, Euskadi eta Estatu bisitatzera txangozaleak bultzatzen dituzten arrazoiak antzekoak direla ikus dezakegu.

Estatuan aisiarengatik datozen txangozaleen pisua Euskadin baina 2 puntu portzentual gorago kokatzen da. Gehitutako “Erosketak” arrazoiak, aldiz, Euskadikoa Estatu batezbestekoa baino 4 puntu gorago kokatzen da.



■ Aisia/Ocio ■ Lana/Trabajo ■ Ikasketak/Estudios ■ Zerb. Pert./Serv. Pers. ■ Beste batzuk/Otros ■ Iragaitzako/Transito


3.5.- Euskadira etortzen diren txangozaleak bisitaren maiztasunaren arabera. Urteko bilakaera 2008 - 2012

Txangozaleen bisiten maiztasunaren gainean, Estatukoekin alderaketa egitea ezinezkoa dela esan beharra dago, IETk ez baitu bere dokumentuetan aldagai honen informaziorik argitaratzen.


Aurreko urteetan, Euskadi bisitatzen zuten txangozale gehien maiztasuna, hilabetean behin zen. Aurten, asteroko bisitek indarra hartzen dute, kontuan hartuz beti txangozale askok ez dutela bere bisiten maiztasuna adierazten, ez aurten ez aurreko urteetan.

Edozein maiztasun saileko txangozeleen

balio handi hauek, berriz ere, frantziar mugaren garrantzia agerian uzten dute, txangozale asko mugatik gertu dauden herrietakoak direlarik, eta muga bere ohiko ingurunearen barruan dagoelarik. Hauen artean mugaz bestaldeko langileek garrantzia handia dute ere.



Alkohola, tabakoa eta gasolinaren salneurri baxuak, eta merkatal zentruen hurbiltasunak, mugatik gertu bizi diren frantziar askok, erosketak egiteko, muga sarritan igarotzea eragiten dute. Eragina dauka ere, garai batean Gipuzkoan, eta konkretuki Donostia/ San Sebastian-en bertakoentzat etxebizitzek salneurri eskuraezin bat zutenez, Frantzia, sustatzaileek egindako urbanizazioetako etxebizitzak eskaintzetaz baliatu zirela, bere ohiko etxebizitzak Hendaya bezalako herrietan erosiz. Pertsona hauek, gehienetan bere bizitza Euskadin egiten jarraitzen dute, nahiz eta Frantzia bizi.



Bere egonaldiaren maiztasuna zehaztu ez duten txangozaleak kanpoan utzita, Euskadi bisitatzen dutenen erdiak hilabetero egiten dutela esan daiteke.

Txangozaleen %16,8ak soilik, ez du bere bisita urte osoan errepikatzen.


3.6.- Euskadira etortzen diren txangozaleak bisitaren maiztasunaren eta arrazoiaren arabera. 2012. urtea

Bi aldagai hauen baterako azterketak, txangozaleen aurtengo jokaera zehazten laguntzen du.

Lanagatik datozen txangozaleen %37ak, eguneroko maiztasunarekin egiten dute. Egunero etortzen direnen %23ari dagokio, eta mugaz bestaldeko langiletzat hartzen dira.

Maiztasuna gora dijoan eanean, aisiaren arrazoiagatik datozen txangozaleak gora doaz ere, lanaren arrazoiarengatik datozenak bera doaz eta "erosketak" arrazoiarenak ere, hala ere, pisu garrantzitsu bat izaten jarraitzen dute.

Astean behin datozenen artean, lanaren arrazoiak pisua galtzen duela ikus daiteke.




Bisitak jeisten diren neurrian, txangozaleak bere ohiko bizilekuan mugitzen den mugaz bestaldeko biztanle bat izateari uzten dio, benetazko txangozale bihurtzeko.

3.7.- Euskadira etortzen diren txangozaleak norako Lurralde Historikoaren arabera. Urteko bilakaera 2008 - 2012

Azken urteetan, 2011rarte ez daude datuak txangozaletasunaren norakoari buruz, beraz, aztertu daitekeen informazio bakarra aurtengoa da.


Txangozaleen gehiengoa datorren Lurralde Historikoa, Gipuzkoa da, %96,5 batekin, Frantziaren mugakide. Bizkaira %2,9 bat iristen dira eta Arabara %0,6.

Beraz, Euskadiko txangozaletasun tipoa errepidez Frantziatik Gipuzkoara datorren txangozaletasuna da.



3.8.- Euskadira etortzen diren txangozaleak norako turistikoaren arabera. Urteko bilakaera 2008 - 2012

Norakoa lurralde maila baino maila banatuago batean aztertzen denean, ikusi daiteke txangozale gehienak Euskal Kostaldera datozela. Hau, Irun, mugako herria, eta Hondarribia, ondoan dagoena, Euskal Kostaldean barneratuak daudelako gertatzen da, eta mugatik bestalde datozen txangozaleek asko bisitatu dituzten herriak dira. Barnealdeko herriak bisitatu dituzten txangozaleen %5ak, Oiartzun, Erreterria eta Usurbil bezalako herrietara datozenak dira, frantsesek askotan bisitatu dituzten merkatal zentruak dauden herriak izanik.



3.9.- Euskadira etortzen diren txangozaleak norako turistikoaren eta bisitaren arrazoiaren arabera. 2012. urtea

Ikusi daitekeen bezala, arabar hiribura bisitatzen duten txangozaleak, arrazoi pertsonalengatik (erosketak) eta lanarengatik egiten dute gehien bat (erosketak) eta


Bilbon, nahiz eta arrazoi nagusia pertsonala (erosketak) izan ere, aisiak garrantzia handia hartzen du ere, lanak jarraituz.

Donostia/ San Sebastian-en, aisiak garrantzi handia dauka, batez ere asteburuko txangozaleen artean. Frantsesak asteburuetan gastronomia eta gaueko aisiaz gozatzera pilaka datozte, gaueko aisi honen

ezaugarria tabernetan alkoholak duen prezio baxua da bere herrialdean dagoenarekin alderatuz. "Erosketak" arrazoi txangozaleen artean oso hedatua dago ere, Donostia/ San Sebastian-en arrazoi hau, merkatal zentru handietan arroparen erosketekin eta boutique-tako jantzi erosketekin oso erlazionatua dagoelarik.

Euskal Kostaldean, Irun eta Hondarribia bezalako herriak erosketen arrazoiagatik datozten txangozaleen gehiengoa biltzen dute (gasolina, tabakoa, alkohola, etab.).

Barnealdean ere erosketen arrazoi nagusitzen da, baina kasu honetan merkatal zentru handietara eta kontsumo-ondasunetara zuzenduta daude.



4. EUSKADIRA ETORTZEN DIREN ATZERRIKO BISITARIEN (TURISTAK ETA TXANGOZALEAK) GASTUAK



Txangozaleen gastuak oso eragin handia du bisitarien gastuan, bisitarien 855 irudikatzen dituztelarik, turistek berriz %15a. Gastu osoaz gain, eguneroko batzbesteko gastuek eta pertsonako batzbesteko gastuek, ez dituzte ezberdintasun handiak aurkeztuko. Txangozaleen kasuan, turistekin konparatuz asko direnak, bi gastu hauek berdinak dira, ostatu gaurik ez dagoelako.

4.1.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastua (turistak eta txangozaleak). Urteko bilakaera 2008 – 2012

Bisitarien hazkundera %0,3koa izan da, hauen gastua aldiz, %1,5 jeitsi da, 2012an 1.673.830.610 euroko zifra batera iritsi arte.

2009an bisitarien gastua %11,8 batean igo zen, 2010ean %0,3 jeisteko, eta hortik salto handi bat egiten du 2011ean %23,8 igoaz. Azkenik 2012an %1,5eko beherakada bat jasaten du.

Badirudi, gorakada handi eta beherakada txikiak edukitzeko joera hau, hazkundera mailakatu batekin bat etortzen dela, bi urteko epeak behar dituelarik hazkundera hau finkatzeko. 2008tik aurrera Euskadiko ekonomia turistikoa goraka doa, gaur egungo %36ko hazkundera iritsi arte, 2008rekin konparatuta.




Bisitarien eguneroko batezbesteko gastuak, gastu osoaren patroia berdina jarraitzen du, baina 2012an 2009an baino batzbesteko balio txikiagoetan kokatuz. Hau bidaiarien kopurua eta ostatu-gauen kopurua igo delako, kasu honetan turistak, gertatu da.

Eguneroko batezbesteko gastuak ere 4,06 euroko atzerapen bat jasan du aurreko urtearekin konparatuz, %3,9ko galera bat suposatzen duelarik.

2009. urtean eguneroko batezbesteko gastua %11,1ean berreskuratu zen, 2010ean %4,7 bat jeitsi zen eta 2011 berriz ere %8,7 bat igo, azken urteetako kota altuenera iritsiz.

Pertsonako batezbesteko gastuak 2,68 euroko antzeko beherapen bat jasan du, hau da, %1,8. Eguneroko batezbesteko gastuarekin gertatu den bezala, pertsonako batezbesteko gastuak, gastu totala jeistean eta pertsona kopurua igotzean, behera egiten du.

2009an, pertsonako batezbesteko gastua berreskuratu egin zen %10 batean, 2010ean %6,1 galduaz eta 2011ean gora eginez %7,9 batean, azken bosturtekoko kota altuena lortuz, gero 2012a %1,8 ko galera batekin bukatzeko.




4.2.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastu osoaren banaketa (turistak eta txangozaleak). 2012. urtea

2012an Euskadira etortzen diren atzerriko bisitarien gastu osoa 1.673.830.610 eurokoa izan da, eta honela banatuta dago: %30,4 txangoetan egindako gastuak eta kontzeptu nagusietan ez bildutako beste batzuk. Bisitariak ekarritako 509 milioi euroetatik, 409 milioi (%80) txangozaleek egindakoak dira eta 100 milioi (%20) turistengatik.

Txangozaleek pakete turistikoan egindako gastuetan ez dute parte hartzen, ezta ostatu gastuetan ezta elikagaien gastuetan ere.

Garrantzian bigarrena joan-etorriko garraioko gastua da, 350 milioi euroekin, norako garraioan egindako 308 milioiko gastuak jarraituz. Beste erakunde turistikotan egiten duten moduan (IET barne) garraio gastuak bateratu ezker, lehenengo postuan egongo litzateke, ia 658 milioi euroekin. Gastu hau bananduta mantendu nahi da, norakoan egiten den garraio gastuak, zuzenki edo zeharka norakoko ekonomian eragina daukalako (Euskadi).



Jatetxe, taberna eta kafetegietan egindako gastua 227 milioi eurokoa da eta ostatuan egindakoa 161 milioi baino gehiagokoa. Pakete turistikoan egiten den gastuak 71 milioiak lortzen ditu, eta gastu txikiak, elikagaietan egiten dena, 47 milioi euroak lortzen ditu.

4.3.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastuak, hilabeteko (turistak eta txangozaleak). Urteko bilakaera (2008 – 2012)

Bisitariak egindako gastuak aztertuz, ikusi dezakegu urtarrilan gastu baxuena 2009an izan zela, 61 milioi euroekin eta altuena aurten, 91 milioi eta erdirekin, interurteko %1,2ko hazkunde batekin 2011rekin konparatuz.

Otsailak, 2009an ere bere kota baxuena 75 milioi eta erdirekin lortzen du, eta 2012an bere maximoa, 91 milioi euroekin eta interurteko %10,8ko hazkunde batekin.

Berriz ere, 2009ko martxoak adierazten du minimoa 87,6 milioirekin eta 2011ko martxoak markatzen du maximoa, ia 106 milioirekin. 2012an behera dijoa, %1, bat, 103,8 milioiraino.

2008ko apirilan aurkitzen dugu gastu baxuena 83,6 milioirekin, eta altuena 2011ean, 121,4 milioirekin, %5,6 bat jeitsiz 2012an 114,6 milioirekin geldituz.

Martxo eta apirileko datuak, urtearen arabera, txandakatu egiten dira, Aste Santua dela eta, urte batzuetan martxoan eta besteetan apirilean izaten baita.

Maiatza, urteen joanean oso hilabete ezegonkorra izan da. 2010ean gastu minimoa ematen da, 111 milioi euroreki, eta 2009an maximoa, 173 milioirekin. 2012an gastua 148 milioikoa da, aurreko urtean baino %6,3 gutxiago.

2009ko ekainan ematen da balio minimoa 112,4 milioirekin eta 2012an maximoa 149,1 milioi euroekin, interurteko %12,3ko hazkunde batekin.

Uztailan eman den gastu baxuena 2010ean izan zen 145 milioi euroekin eta altuena 2012an da berriz ere, 221 milioirekin, aurreko urtean baino %0,8 gehiago.


Abuztuak 2008an izan zuen gastu baxuena, 150,5 milioirekin eta 2011ean 268 milioiak lortu ziren, hilabete bateko gastuaren record historikoa lortuz, %10,7 bat jeitsiz aurtengo 239,4etara iritsi arte.

Irailak bere minimoa 2008an dauka, 113,8 milioirekin eta bere maximoa 2012an 163,4 milioirekin interurteko %4ko hazkunde baten ostean.


2009ko urrian gastu baxuena eman zen, 97,8 milioi izan ziren eta balio altuena lehengo urtean lortu zen 152,7 milioirekin, aurten, gastua, %10,9 bat jeitsi delarik 136 milioietan geldituz.

2008ko azaroa 80 milioirekin gelditu zen eta 2010ean izan zen 107,8 milioiak lortu ziren urtea. 2012an gastua erdi maila batean egon da, 92 milioirekin, aurreko urtean baino %2 bat gehiago.

Azkenik, urteko azken hilabetean 64,8 milioi gastatu ziren 2008an, eta gastua altuena aurten izan da, 2008ko zifra bikoiztuz, eta interurteko %1,6ko hazkunde batekin, ia 124 milioi euro.



Eguneko batez besteko gastua / Gasto Medio Diario



Eguneko batezbesteko gastuari buruz, esan beharra dago, hilabete eta urteen arteko aldaketak nahiko txikiak direla, eta 70,4 euroko 2008ko abenduko batezbesteko baliotik, 2009ko maiatzeko 166,27 euroko maximora doazela.

Eguneko batezbesteko baliorik baxuena, abuztuan ematen da normalean, ostaturik gehien egiten diren hilabetea delako, bidaiaren eguneko batezbestekoa jeisten duen gertaera.

2012ko abuztuan, eguneko batezbesteko gastu hau 87,28 eurokoa izan da eta %12,1eko beherakada bat jasan du aurreko urtearekin konparatuz.

Aurtengo eguneko batezbesteko gastu altuena irailekoa izan da %1,2 batekin eta 116,55 euroko balio batekin.

Beharakada nabarmenena martxoan gertatu da %17 batekin, baina lehengo

urtean Aste Santuarekin egokitu zelako izan da.

Urria izan da hazkunde gehien bildu duen urteko hilabetea, %6,1 batekin, 112,34 eurotan kokatuz.


Grafikan ikus daitekeen bezala, pertsonako batezbesteko gastuak, eguneko batezbesteko gastuaren antzeko jokaera erakusten du, baina turistek ekarritako balio altuagoekin.

Pertsonako batezbesteko gastuan 2009ko maiatzeko eguneko batezbesteko gastuaren tontor berdina ematen da, 227,20 euroekin. Oraingoan beste tontor esanguratsu bat agertzen da, 181,61euroekin urte bereko irailean, baina ez ondorengoetan, kota baxuagoak lortzen direnetan.

Pertsonako batezbesteko gastuarik baxuena azken bosturteko hilabeteetan, 2008ko abuztuan ematen da, 109,99 euroekin.

Pertsonako batezbesteko gastu honen interurteko hazkundea 2012ko hilabeteetan zehar, %10 bateko tarte batean egon da gutxi gora-behera, 2012an beherakako %1,8ko bukaerako kitapen global batekin.

Batez besteko gastua pertsonakoa / Gasto Medio por Persona



4.4.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastuak (turistak eta txangozaleak), bidaiari motaren arabera. Urteko bilakaera 2008 – 2012

Bidaiari motaren arabera bisitarien gastu totala aztertzean, ikusi daiteke, turistek egindako gastua txangozaleek egindakoa baino altuagoa dela azken bost urteotan.

Turisten gastu osoa, 2010ean ezik (%2,5 bat galtzen du), gorakako joera bat mantentzen du 2012an record historikoa lortu arte, 1000 milioetatik gertu.


Txangozaleen gastu osoak gorakako joera bat erakusten zuen, turisten gastuarekin alderatuz, 2011rarte, non bi gastuak 13 milioiko diferentzia bat azaltzen zuten, baina 2012an txangozaleen gastuak behera egin du %10 batean ia, berriz ere turisten gastutik bereizten, 150 milioi eurotan.

Eguneko batezbesteko gastuak beste jokaera bat erakusten du. Turisten gastu osoa %6,5 bat igo da 2011rekin konparatuz eta eguneko gastua %0,1 jeitsi da, 2009ko balioetatik gertu kokatuz.

Txangozaleen eguneko batezbesteko gastuaren beherakada, kasu honetan pertsonako batezbesteko gastuaren berdina delarik, ostaturik ez egiteagatik, gastu osoaren beherakadaren proportzio berdinean mantentzen da, %9,4eko galera batera iritsiz, 2009ko balioen azpitik gelditzen delarik.


Pertsonako batezbesteko gastuaren gainean, turista eta txangozaleen arteko ezberdintasuna izugarria da, turistek bidaiako, pertsonako 525 euro gastatzen dituzten bitartean (2012an), txangozaleek 78 bakarrik gastatzen dituzte.

Aurten, txangozaletasunaren gastu osoak, bisitarien gastu osoaren %45,5a irudikatzen du. Honek turisten aurrean, halako pertsonako batezbesteko gastu ain baxuak edukita, gastuaren antzeko tasa bat lortzeko era bakarra, txangozaleen kopurua turistena baino askoz ere handiagoa izatean datza.



4.5.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastuak (turistak eta txangozaleak), sarbidearen arabera. Urteko bilakaera 2008 – 2012


Euskadira etortzen diren bisitarien gastuak, sarbidearen arabera, ezberdintasun handiak ditu. Gastu gehien jasaten duen sarbidea errepidea da. Logikoki, txangozaleek turistak aurrean daukaten garrantzia dela medio. Txangozaleak pilo bat izateaz gain, errepidez etortzeagatik bereizten dira. 2009 eta 2010. urteetan errepide bidez sartzen diren bisitarien gastu totala aire bidez egiten dutenenaren bikoitza da. 2011ean diferentzia hau larriagotu egiten da, hirukoiztera iritsiz ia, eta aurten aldiz behera doa, bikoiztera iritsiz berriz ere.



Aire bidez sartzen diren turistak gastuak marrazten duen lerroa, lerro zuzen eta laua da, oso makurdura txiki batekin, beherakoa, 2012an berriz ere gora doan arte, %14,2ko hazkunde batekin. Errepidea %7 bat jeitsi da.

Itsas bidea, bisitari gutxi erabiltzen dutenez, 2008tik sarbide honen gastuaren balioak behera doaz, 15 milioi euro baino gutxiagora jeitsiz 2012an. Urte honetako beherakadak %35 bat suposatzen du.

Eguneko batez besteko gastua / Gasto Medio Diario



Itsas bideko eta aire bideko bisitarien eguneroko batezbesteko gastuaren eboluzioari begira, 2008an gastuen maila ia berdina zela ikusi daiteke, itsasontzien kasuan pixka bat handiagoa. Urteen joanean berdintasun hau aldentzen joaten da itsas bideko bisitarien batezbesteko gastua jeisten doalako 2011. urterarte eta 2012a %17,6ko igoera batekin bukatuz. Hegazkinez datozenen batezbesteko gastuaren interurteko aldaketa, beherakakoa izan da (%6,8), 160 eurorarte, bere batezbesteko gastu handiena lehengo urtean lortu eta gero.

Eguneko batezbesteko gastu baxuenak errepide bidez datozen bisitariak daukate, txangozaleak


direnak gehien bat.

Pertsonako batezbesteko gastua aztertzean, aire bidezko bisitariak itsas bidezkoen gastua bikoizten dute, eta errepide bidezkoena baina 10 aldiz gehiago dute.

Errepide bidez datozen bisitarien pertsonako batezbesteko gastua 2012an %7 bat jeisten da, hegazkin eta itsasontziz egiten dutenena ordea igo egiten da, %3,1 eta %3,6 hurrenez hurren.

Azken bost urteetan eragin gehiago jasan dituen sarbidea, batezbesteko gastuaren arabera, itsas bidekoa izan da, 2008tik 2010era beherakada bat jasan duena, %26,2.

Batez besteko gastua pertsonakoa / Gasto Medio por Persona




4.6.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastuak (turistak eta txangozaleak), bizilekuaren arabera. Urteko bilakaera 2008 – 2012

Bizilekuaren arabera gastu totala aztertzean, bi grafika sortu dira, bat Frantzian bizilekua dutenekin eta bestea gainontzeko herrialdeetako gastuekin. Banaketa honen arrazoia, beste herrialde hauen aldaketa eta proportzioak antz eman ahal izateko egiten da, frantsesek duten pisua ain handia da, hauen gastuak ikusteko grafikaren eskala egokitzea oso zaila dela, beste herrialdeen gastuak ikusi nahi baditugu. Txangozaleen gastua, gehienak frantsesak direnak, turistak gastuarekin batera, hauek ere frantsesak direlarik gehiengoan, bigarren herrialdearekin ezberdintasunak ain handiak dituzte, ezin direla eskala berdinean erakutsi. Adibidez 2012an frantsesen gastu totala 923 milioi eurokoa izan zen eta gainerako beste 10 herrialdeak 21 eta 118 milioien artean daude.


Bisitari frantsesen gastu totala, aurreko urtearekin %7,5 jeitsi da, hala ere ekarpen gehien egiten duten bisitariak dira, eta askogatik, Euskadiko ekonomia turistikora. 2011. urtean bisitari frantsesen merkatuaren gastu kota altuena lortu zen, ia mila milioi euroekin.

Gainontzeko herrialdeen gainean, ikusi dezakegu, gastu total handiena daukaten herrialdeak Euskaditik urrunen daudenak direla. Joan etorriko garraioaren balioak gastu honen zati bat azaltzen du, urrunen dauden herrialde hauetan handiagoa delako. Beste Europakoek aurreko 118 milioi gastatu dituzte, iberoamerikarrek 109 milioi, ipamerikarrek ia 100 milioi eta zehaztu gabeko munduko beste herrialdeek 98 milioi. Gertuago dauden herrialdeen artean Alemania da aipagarriena, 92 milioi eta erdirerkin, gero Erresuma Batua 80 milioi eta erdirerkin eta Portugaldarrak 66 milioirekin ondoren. Gainerako herrialdeek ez dute gastu aipagarriarik egiten.



Interurteko gastu hazkunde handiena Iberoameriketako bisitariak jasan dute %25,6 batekin, eta beherakada nabarmenena italiarrek jasan dute, %24,8.

Gastu osoa / Gasto Total



Merkatu frantseseko bisitariak daukate eguneko batezbesteko gastuenik baxuena, Euskaditik gertuen daudenak direlako eta txangozale gehienak aurki ditzazkegulako atal honetan. Aurten %7,6 bat galdu dute, bere eguneko batezbesteko gastua 79,32 eurotan finkatuz.


Bestalde, eguneko batezbesteko gastuenik altuena, zehaztu gabeko munduko beste herrialdeetako bisitariak daukate, 275,84 eurokoa, eta 2011rekin alderatuz %1,1eko gorakada batekin.

Iparamerikarrek ere eguneko batezbesteko gastu altua daukate, 217,8 euro, %32 hazkunde handi baten ostean. Iberoamerikarren eguneko batezbesteko gastua azken urtean gehien jeitsi dena da, %22,1, 151,08.


Azken bost urteetan, Erresuma Batukoek (128,57 €), alemaniarrek (139,42 €), beste Europako herrialdeetakoek (152,87 €), iparamerikarrek eta munduko beste herrialdeetako biztanleek lortu dute eguneko batezbesteko gastuenik altuena.

Frantsesek 2011ean lortu zuten eguneko batezbesteko gastuenik altuena 85,81 €, italiarrek 2009an, 149,97 €, portugaldarrek 2009an ere, 145,23 €, belgiarrek 2008an 152,27 euroekin, holandarrek 2010ean 129,01 euroekin eta iberoamerikarrek 2011ean 193,86 euroekin.

Batez besteko gastua pertsonakoa / Gasto Medio por Persona



Eguneko batez besteko gastua / Gasto Medio Diario



Pertsonako batezbesteko gastuak, bisitarien bizilekuaren arabera, Euskadin, txangozale frantziarren eragin handia du, hortaz, frantsesen pertsonakobatezbesteko gastua (91,26 euro) eguneko batezbesteko gastuaren (79,32 euro) oso antzekoa da. Pertsonako batezbestekoaren interurteko aldaketa negatiboa izan da, 2011

urtearekin alderatuz %8,1eko galera batekin, non azken bost urteetako baliorik altuena lortu da 99,30 euroekin.

Gainontzeko herrialdeek gastu handiagoak dituzte garraio gastuak gehitzean besteak beste, eta ostatu-gauen aparteko izanik, eguneko batezbesteko gastuen kasuan, ostatu-gauen arabera gastu hau baretu egiten delarik. Geroz eta ostatu-gau gehiago eguneko batezbesteko gastu baxuagoa.

Logikoki, urrunagotik datozen bisitariak daukate eguneko batezbesteko gasturik altuena. Horregatik iparamerikarrena da baliorik altuena 1.360,60 euro pertsonako izanik. Gastu hau 5 urteetan altuena izan da eta %0,2ko hazkunde txiki bat jasan du. Iberoamerikarrek ere 2012an egiten dute azken urteetako gastu gehiena, 1.358,50 euro pertsonako, lehengo urtean baino %6 gehiago.

Gertuen dauden merkatuen barruan, beste gastu maila batean, Alemania aurkitzen da 546,84 euroekin, Erresuma Batua 483,73 euroekin eta Italia 404,69 euroekin. Portugal, pertsonako 231,92 euroko gastuan kokatzen da. Bere hazkundera handiena da %28,2 batekin.



4.7.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastuak (turistak eta txangozaleak), bisitarien arrazoiaren arabera. Urteko bilakaera 2008 – 2012

Gastu totalaren %42,5, oporrak eta aisiaren arazoari dagokie, aurten bere kota altuena lortuz %1,7 batekin. Zerbitzu pertsonaletan eta beste arrazoiengatik egindako gastuak batuaz, "erosketak" arrazoiarekin sortzen den nahasketa dela eta, arrazoiengatik egindako rankinean bigarren postuan daude, %41,1eko gastu bat lortuz (687 milioi euro), bere ibilbideko emaitzarik onena. Ondoko grafikan ikusi daitekeen bezala, 2009tik aurrera zerbitzu pertsonalak jeisten doaz (marra morea), beste arrazoiaren marra igotzen den proportzio berean (laranja), bi joerak orekatuz.

Hirugarren gastua aurten lanaren arrazoiengatik sortutakoa da (%13,5), %17ko atzerapen handi bat jasan duena, eta azken postuan ikasketen arrazoi dago %3 bat irudikatzen duena, interurteko %13ko gorakada batekin.

Eguneko batezbesteko gastu handiena salerosketengatik datozen bidaiariei dagokie, 127 euro eguneko, aurreko urtean baino %1 gutxiago. Bigarren gastu altuena aisiagatik datozenei dagokie, 112 euro, eta %2,2ko hazkunde bat. Zerbitzu pertsonalen estadia %15 bat erori da 67,64 euroetaraino, zehaztu gabeko eguneko gastuekin konpentsatuz, 99 euro eguneko.

Ikasketengatik batezbesteko gastuak, eguneko 90 eurotako zifrak lortzen ditu, interurteko %1,6ko beherakada batekin. Ikasketengatik datozen bisitariak, normalean egonaldi luzeak egiten dituzte, eguneko




gastuak behera egiten duelarik. 2011ean, ikasleek bere gastua bikoiztu egin dute.

Salerosketen arrazoiagatik datozen bidaiariak eguneko gastu handia daukate, batezbestekoa baino %26 bat altuagoa. Aisiagatik datozenek %12 bat eta gainontzeko arrazoiak batezbestekoaren azpitik daude, hau 100,47 €koa delarik.

Ikasleen bisiten iraupena, beste edozein bisitari motena baino askoz ere handiagoa dena, beste edozein kolektibok izan dezakeen pertsonako batezbesteko gastu total handiago bat zehazten du. Datu honen garrantzia ikusi ahal izateko, kontuan hartu behar dira bai bidaiari mota hauen sarrerak bai eguneko batezbesteko gastuak. Datu hauek ikusita esan daiteke eragiten duten gastu totala ez dela esanguratsuegia.

2012an, pertsonako gehien gastatzen duten txangozaleak hilabetero behin datozenak dira, 95,29 €-rekin eta interurteko %6,2 beharpenarekin. Egunero etortzen direnak %6,7 bat jeisten dira, astean behin egiten dutenak %7,9, urtean behin egiten dutenak %9,2 eta maiztasun baxuagoarekin datozenak %5,3. 2012an denek beheraka egiten dute.




6.8.- Euskadira etortzen diren txangozaleen gastuak, norako Lurralde Historikoaren arabera. 2012. urtea


Norako Lurralde Historikoari begiratu, Euskadi bisitatu duten atzerriko txangozaleak Gipuzkoara etortzen dira ia osotasunean, 730 milioiko gastu bat eginez eta txangozaleen gastu osoaren %96 bat suposatzen dutelarik

Bizkaia etortzea aukeratu dutenek, 26 milioi gastatu dituzte eta gastu osoaren %3 bat irudikatzen dute.

Batez besteko gastua pertsonakoa / Gasto Medio por Persona



Gastu osoa / Gasto Total




Arabak 6 milioi euro baino gutxiagoko txangozale gastu bat lortzen du, %1.

Txangozaleen pertsonako batezbesteko gastua, gastu totalaren alderantziz proportzionala da, Arabako txangozaleek 104,38 euro gastatu dituztelarik, bizkaitarrek 93,92 euro eta gehiengoak direnak, Gipuzkoara datozenek, 77,62 euro.


6.9.- Euskadira etortzen diren txangozaleen gastuak, norako turistikoen arabera. 2012. urtea

Norako turistikoen arabera, txangozaleen gastu totalak, %70 batean Euskal Kostaldean bateratzen dira, ia 530 milioi euroekin. Irun eta Hondarribia, mugako herriak, bertan taldekatu direlako gertatzen da fenomeno hau, erosketa eta aisirako txangozale frantsesen lekuri gustokoenak.

Batez besteko gastua pertsonakoa / Gasto Medio por Persona



Gastu osoa / Gasto Total



Donostia/ San Sebastian txangozale frantsesek aukeratuak beste norakoetako bat da, ia 176 milioieko gastuarekin, totalaren %23a.

Lurralde Historikoetan gertatzen zen bezala, gastu total baxuena daukaten norakoak, pertsonako batezbesteko

altuenak dituztenak dira.


7. EUSKADIRA ETORTZEN DIREN ATZERRIKO TURISTEN BATEZBESTEKO EGONALDIA

Adierazle turistiko bezala batezbesteko egonaldiak duen garrantzia dela eta, aurreko atalean beharrezko datuak ez edukitzeagatik ezin izanenez egonaldi honen azterketa sakon bat egin, orain da, mikro datuekin, txostenean agertzen diren gainontzeko aldagaiekin, batezbesteko egonaldiaren aldagai hau ustia daitekeen momentua.

Aurkezten diren grafikei esker, emaitzen ulerpena eta azterketa ikusi ditzazkegu, emaitza aipagarrienak bakarrik deskribatuko direlarik, eta interurteko aldaketen informazioa emango delarik.

7.1.- Euskadira etortzen diren turistaren batezbesteko egonaldia. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa- Euskadi 2008 –2012

Euskadira etortzen diren turistaren batezbesteko egonaldia azken bost urteotan 4 ostatu-gauen inguruan dabil, 2011rekin alderatuz %2,8ko hazkunde batekin.




Estatuan batezbesteko egonaldiak handiagoak dira eta aurten %3,3 bat jeitsi da 2011rekin alderatuz.

Desberdintasun handiena egonaldien iraupenean dago, Estatuan 9 ostatu-gaueko batezbesteko bat dagoelarik, Euskadin dauden ia bikoitza.

7.2.- Euskadira etortzen diren turistaren batezbesteko egonaldia, hilabeteko. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa- Euskadi. 2012. urtea

Euskadin, turismoaren batezbesteko egonaldiak interurteko aldaketa batzuk jasan ditu 2012an: urtarrilean %18,9 igo da, otsailean %7,5, martxoan %31,5, apirilean %13,8, maiatzan %17,1 jeitsi da, ekaina berriz %4,6 bat igotzen da, uztailea %22,4, abuztuak behera egiten du %9,8, iraila hazi egiten da berririo %11,6, azaroa %5,3 jeisten da eta abendua da gehien galtzen duen hilabetea, %40,3 batekin.




Euskadik bere batezbesteko egonaldia 1,1 ostatu-gauetan aldatzen du batezbeste, eta Estatuak 2,8 ostatu-gauetan aldatzen du batezbeste.

7.3.- Euskadira etortzen diren turisten batezbesteko egonaldia, sarbidearen arabera. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa- Euskadi. 2012. urtea


Errepide bidezko turisten batezbesteko egonaldia Euskadin, %4,6 bat jeitsi da aurten, aireportuan %10,2 igo da eta itsas bidean %17,8 jeitsi da.

Euskadin, sarbideen arabera egiten diren ostatu-gauen artean desberdintasun handiak daude, Estatuan, ordea, ezberdintasun hauek ez dira aurkitzen.



7.4.- Euskadira etortzen diren turisten batezbesteko egonaldia, bizilekuaren arabera. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa- Euskadi. 2012. urtea

Bizilekuaren arabera egonaldia aztertzerakoan, Euskadi eta Estatuaren arteko ezberdintasunak herrialde konkretu batzuetan txikiagoak direla ikusten da, adibidez, Iberoamerikarrak, Euskadira batezbesteko 10,9 ostatu-gau egitera etortzen dira eta Estatura 12,8. Portugaldarren kasuan Euskadin ostatu-gau gehiago egiten dira, 5,3, Estatuan 4,7 direlarik.



Euskadin, Iberoamerikarrak eta Portugaldarrak batezbesteko egonaldia gehien igo dutenak dira, %39,4 bat eta %31,5 bat hurrenez hurren.


7.5.- Euskadira etortzen diren turisten batezbesteko egonaldia, bisitaren arrazoiaren arabera. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa- Euskadi. 2012. urtea

Lanagatik edo salerosketengatik etortzen diren turisten batezbesteko egonaldiek, Euskadin eta Estatuan ez dituzte ezberdintasun handiak.


Ikasketengatik datozen turisten artean da alde handiena aurkitzen den multzoan.

Euskadira Aisiagatik datozen turisten interurteko hazkundera, %5,8koa izan da, eta arrazoi pertsonalengatik datozenena %38,3koa.

Gainontzeko arrazoiaren egonaldiek interurteko aldaketa negatibo bat jasan dute, %20,2 lan arrazoiengatik datozen turistik, %21,5 ikasketengatik datozen turistik eta %26,1 zehaztu gabeko beste arrazoiengatik datozen turistik.



7.6.- Euskadira etortzen diren turistaren batezbesteko egonaldia, egonaldiaren iraupenaren arabera. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa- Euskadi. 2012. urtea.



Batezbesteko egonaldia, egonaldiaren iraupenaren arabera aztertzean, logikoki batezbestekoak atxiki egiten dira, eta Euskadin eta Estatuan ez dira ain beste desberdintasun azaltzen.

Luzera gehieneko estratuetan, 8 ostatu-gau bitartekoak, Euskadin Estatuan baino batezbesteko egonaldi altuagoak ematen ditu.

8tik 15 ostatu-gau bitarteko zatian, Euskadi eta Estatuaren artean dezima bateko aldea bakarrik aurkitzen dugu, Euskadiren alde. 16tik 30 ostatu-gau bitarteko

turistetan, aldea ia 2 ostatu-gaukoa da Euskadiren alde, eta hilabete baino gehiagoko egonaldietan aldea 12,3 ostatu-gau gehiagokoa da Euskadin Estatuan baino.


Interurteko aldaketak egonaldi tarte bakoitzeko, %5 baino gutxiagokoak izan dira, bai positiboan eta bai negatiboan.

7.7.- Euskadira etortzen diren turistaren batezbesteko egonaldia, ostatu motaren arabera. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa- Euskadi. 2012. urtea

Erabilitako ostatu motaren arabera, alokairuzko etxebizitzetan bakarrik aurkitzen dugu Euskadi, Estatuan baino egonaldi luzeagoekin, 3,7 ostatu-gau.

Kanpinean da diferentzia gehien aurkitzen dugun multzoa, 9,1 ostatu-gauekin.

Interurteko aldaketa esanguratsuenak, beste ostatu moten %17,5 beherakada, alokairuzko etxebizitzetan %10,1eko igoera eta kanpinaren %9,6ko beherakada dira.




7.8.- Euskadira etortzen diren turisten batezbesteko egonaldia, bidaiaren antolaketaren arabera. Urteko bilakaera eta Estatuarekin alderaketa- Euskadi. 2012. urtea

Bidaiaren antolaketaren arabera, Euskadi eta Estatuaren arteko ezberdintasunak berriz ere handiak dira, egonaldien totalen bezala.

Estatua, 8,1 eta 9,3 ostatu-gauen artean dago (1,2 ostatu-gauko aldea) eta Euskadi, 3,5 eta 4 ostatu-gau artean dago (ostatu-gau erdiaren aldea).

Euskadi eta Estatuaren batezbesteko egonaldien aldea 5 ostatu-gaukoa da gutxi gora-behera, Estatuaren alde.

Pakete turistikorik erabiltzen ez duten Euskadiko turistak %2,2 hazi dira aurreko urtearekin alderatuz eta erabiltzen dutenak ere %15,1 hazi dira.




7.9.- Euskadira etortzen diren turisten batezbesteko egonaldia, norako Lurralde Historikoaren arabera. 2012. urtea

Euskadira etortzen diren turisten batezbesteko egonaldia aztertzean, Bizkaian egonaldi luzeenak daudela ikusi dezakegu, interurteko %6,2ko hazkunde batekin eta azken bost urteetako kota maximoa lortuz.

Gipuzkoako batezbesteko egonaldia aurreko urtearekin %7,5 bat. Azken bost urteetako balio maximoa 2009an izan zen, gaur egungo egonaldiak baino dezima bat goragokoa.

Araban, 4,2ko batezbesteko egonaldiak %13,4ko beherapen bat jasan du, 2011rekin alderatuz, urte hau izanik bosturteko honetako balioirik altuena eman zuen urtea, 4,8 ostatu-gaurekin.



7.10.- Euskadira etortzen diren turisten batezbesteko egonaldia, norako turistikoaren arabera. 2012. urtea

Batezbesteko egonaldia, norako turistikoaren arabera aztertzean, ikusten degu ostatu-gauen maximoa Arabar Errioxari dagokiola, baina kontuan izan behar da laginaren neurri txikia dela eta, akats balio bat eman dezakela, onartutakoa baino askoz ere handiagoa.


Vitoria/ Gasteizera datozen turisten batezbesteko egonaldia %17,5 jeitsi da azken urtean.

Bilbo norakoa %2,1 igo da aurten, batezbesteko egonaldi altuenak lortuz, 4,5 ostatu-gau.

Donostia/ San Sebastian-en egonaldiak ere %11,7 bat igo dira. Balio maximoa 2009an izan zen 4 ostatu-gauko batezbesteko batekin.

Euskal Kostaldea ere %13,7 bat hazi da, aurten bere kota maximoa lortuz.

Euskadiko barnealdeko batezbesteko egonaldiak %5,2 hazi dira, 2009an lortutako bere emaitza onenetik urrun geratuz, batezbesteko 4,9 ostatu-gau.




8. EUSKADI NORAKO NAGUSI BEZALA BISITATZEN DUTEN ATZERRIKO BISITARIAK (TURISTAK ETA TXANGOZALEAK) ETA BISITARIEN GASTUAK, SEXUAREN ARABERA

Txosten honen aurkezpenean aipatu den bezala, bisitari, turista eta txangozaleak sexuaren arabera zein jokiera dauzkaten aurkeztuko da azken hiru ataletan.

Euskadiren barruan norako aldagai hau bere azterketarako ez dagoenez eskuragarri, Euskadi norako nagusi bezala hartzen dutenen aldagaia aztertuko dugu.

Aldea, Estatura datozen turisten artean Euskadin ostatu-gau gehien igarotzen dituzten turistak kontuan hartzen direla da. Adibidez, bisitari batek Asturiasen 7 ostatu-gau egiten ditu eta 3 Euskadin, bere norako nagusia Asturiasenez Euskadin egindako hiru ostatu-gauak eta gastuak ez dira kontuan hartzen. Euskadiko norakoaz hitz egitean aldiz, hiru ostatu-gauetako gastu hauek azterketan parte hartuko lukete.



Alde honek turistengan bakarrik du eragina, beraz bisitarien multzo osoaren gainean ere, hauek turisten eta txangozaleen batuketa baitira.



Euskadi norako nagusizat duten bisitari guztiak ondoko grafikan aurkezten dira.

2008an norako nagusiak norakoak baino 551.753 bisitari gutxiago ditu, 2009an 535.436 gutxiago, 2010ean 501.850 bisitari gutxiago, 2011ean 427.429 gutxiago eta 2012an 393.706 bisitari gutxiago norako nagusian.

8.1.- Euskadi norako nagusi bezala bisitatzen duten atzerriko bisitariak (turistak eta txangozaleak) sexuaren arabera. Urteko bilakaera 2008 - 2012


Azken bost urteetan gizonetzko bidaiarien pixua emakumezko bidaiarien aurrean igotzen joan da, %56,5etik %61,1era, aurtun %60,8ra jeitsiz. Aurtengo interurteko igoerak 12.108 gizonetzko gehiago izan ditu eta 53.502 emakume gehiago.

Azken bosturtekoan izan den batezbesteko banaketa %59,1 gizon eta %40,1 emakumeetakoia izan da.



8.2.- Euskadi norako nagusi bezala bisitatzen duten atzerriko bisitariak (turistak eta txangozaleak) hilabeteko, sexuaren arabera. 2012. urtea

2012. urtean bidaia egiteko aukeratzen den hilabeteari buruz, emakume eta gizonen arteko proportzioen aldaketak oso txikiak dira normalean. Aipatu daiteke uda sasoian, uztaila, abuztua eta irailan, emakumeen proportzioa urteko batezbestekoaren gainetik jartzen dela. Apirilean, emakumeek batezbesteko banaketa gainditzen dute ere.




8.3.- Euskadi norako nagusi bezala bisitatzen duten atzerriko bisitariak (turistak eta txangozaleak), bidaiari motaren eta sexuaren arabera. 2012. urtea

Atzerriko bi bisitari motak, sexuaren arabera alderatzean, turisten kolektiboaren artean aldea handiagoa dela nabaritzen da, gizonetako turisten kopurua emakume turistenaren gainetik dagoelarik.

Gizonetako turistek jasandako interurteko aldaketa %7,9ko gorakada bat izan da, emakumeena berriz %7,4koa.

Hala ere, txangozaleen interurteko aldaketa ezberdina izan da, emakumeak %0,5 bat igotzen eta gizonetakoak %0,8 bat jeisten direlarik.




8.4.- Euskadi norako nagusi bezala bisitatzen duten atzerriko bisitariak (turistak eta txangozaleak), sarbidearen eta sexuaren arabera. 2012. urtea

Errepide bidez datozen bisitarien banaketa sexuaren arabera, urteko batezbestekoaren gaineratik kokatzen da, gizonezkoen pisua emakumezkoena baino handiagoa delarik.

Gainerako sarbideen kasuan bi sexuen kopuruak gerturatu doaz, nahiz eta gizonezkoen nagusitasunak jarraitu.

Hala ere, errepide bidez datozen emakumeak %96,6 dira beste sarbideen aurrean eta gizonezkoak %96,8.

Interurteko aldaketak, joera adierazten duena, errepide bidez datozen emakumeak %0,7 bat igo direla adierazten du, 4.200.684 emakumeetara iritsiz, gizonezkoak aldiz, %0,3 bat jeitsi direla, 6.530.690raino.




Aire bidean hazkundeak handiagoak izan dira, baina bidaiari bolumen txikiagoa irudikatzen dute. Aire bidez datozen emakumeak %25,1 hazi dira eta gizonezkoak %22, 138.307 emakume eta 202.566 gizonetara iritsiz.

Itsasontzian datozen bisitariak, 20.728 izan dira soilik, beraz hauen banaketak eta aldaketak ez dio joerari argitasunik ematen.

8.5.- Euskadi norako nagusi bezala bisitatzen duten atzerriko bisitariak (turistak eta txangozaleak), bizilekuaren eta sexuaren arabera. 2012. urtea

Euskadira, norako nagusi bezala etortzen diren emakumeen %91,4 a Frantzian bizi dira, gizonen %89,7 a bezala. Horregatik gainerako bizilekuetan ematen diren sexuaren arabera aldeak ez dira ain garrantzitsuak.



Adibidez Iberoameriketara bizi direnak, sexuaren arabera banaketa berdintsua daukate, %47,6 emakume eta %52,4 gizon, 22.883 emakume eta 25.150 gizon, Frantsesak 3.975.505 emakume eta 6.052.423 gizon direlarik.

Frantziako biztanleen interurteko hazkundea, %1,4koa izan da emakumeentzat eta %0,3 gizonentzat.


Garrantzian bigarren herrialdea Portugal da, 245.293 bidaiarirekin, 190.652 gizon (%77,7) eta 54.641 emakume (%22,3). Emakumezko eta gizonetzko bidaiarien arteko ezberdintasun handiena erakusten duen herrialdea da.

8.6.- Euskadi norako nagusi bezala bisitatzen duten atzerriko bisitariak (turistak eta txangozaleak), bisitaren arrazoien eta sexuaren arabera. 2012. urtea

Bisitaren arrazoiak sexuaren arabera aztertzean, ezberdintasun handiak agertzen dira arrazoi konkretu batzuetan.

Lehenik, Euskadi opor eta aisiagatik bisitatzen dutenen artean, sexuen arteko alde urteko batezbestekoaren azpitik dago, Gizonak 1.884.180 eta emakumeak 1.414.162, interurteko %12,1eko beherapen batekin emakumeak eta %4,8koa gizonetzkoak.

Lanagatik datozen bisitariak, gaur egun sexuen arteko alde handia erakusten jarraitzen dute. Emakumeek interurteko %10eko hazkunde batekin, bisitari guztien %21,6 bakarrik irudikatzen dute (177.446 emakume), gizonak aldiz, azken urtean %5,4 bat jeitsi arren, %78,4 bat irudikatzen dute, 645.414 bisitari.



Ikasketengatik datozen bisitarien egoerari bira ematen diote, emakumeek pisu handiagoa dutelarik. Egoera hau, bisitari guztien %0,5 bat bakarrik irudikatzen duena, aurreko urtean emakumeen bisitak %30,15 bat igoaz eta gizonenak %38,3 jeitsiz.



Arrazoi pertsonalak eta beste arrazoiak, batera aztertu behar direnak, "erosketak" arrazoiak bietan aipatzen delako, antzerako banaketa bat daukate, sexuen arteko alde batezbestekoaren gainetik daukatelarik.

Emakumeen interurteko aldaketa arrazoi pertsonalengatik, %39,7 bat jeisten da, beste arrazoiengatik aldiz, igo egiten da %103,2 batean, guztira 2.721.902 emakume direlarik. Arrazoi pertsonalengatik etortzen diren gizonak %39,9 jeisten dira eta beste arrazoiengatik etortzen direnak ordea, %93,1 igo, 4.196.592 gizonetzko guztira.

8.7.- Euskadi norako nagusi bezala bisitatzen duten atzerriko bisitarien gastua (turistak eta txangozaleak), sexuaren arabera. Urteko bilakaera 2008 - 2012


Sexuaren arabera bisitarien gastu osoak, bidaiarien artean baino diferentzia handiagoak aurkezten ditu. Gastuaren egiturak, gizonezkoetan gastu handiagoa aurkezten du emakumezkoetan baino, 2012an %61,7 bat gizonen gastua delarik eta %38,3 emakumeena.

Azken bosturtekoan emakumeen gastua hazitzen joan da 571 milioi eta erdi euroko gastua lortzeraino, interurteko %2ko hazkunde batekin. Gizonen gastu totalak 2010ean atzerapen bat jasan zuen eta aurten beste bat, %2,4ko beherapen batekin, 2011rekin alderatuz, 919 milioi euroko gastuarekin.




Eguneko batezbesteko gastuak ere aldeak ditu sexuaren arabera. Emakumeetan 2010ean 67,79 eurotan zegoen eta 87,12 euro egunekora igotzen da, 2011ean %2,9 jeisteko 84,57 euro egunekotan gelditzeko.

Eguneko batez besteko gastua / Gasto Medio Diario



2008an gizonak, gaur egungo emakumeen gastua baino gastu altuagoarekin hasten dira, eta 2009an eguneko batezbestekoa 98,70 eurotara igotzen dute. 2010an 90,60 eurotara jeisten dute, eta 2011 bere kota maximoa lortzen dute 99,61 euroekin. Aurten berriz jeisten dira, %4,9 batean kasu honetan, 94,68 eurotaraino.

Batez besteko gastua pertsonakoa / Gasto Medio por Persona



Aurten da eguneko batezbesteko bi gastuen aldea 10 eurotara jeisten den urtea.

Pertsonako batezbesteko gastua, 2008 eta 2009an dira bi sexuen artean alde handiena aurkitzen ditugun urteak, gizonak emakumeak ia 23 eurotan gaindituz. Baina aurten, alde hau 5 eurotara jeisten da eta 2010ean adibidez alde hau oraindik ere txikiagoa da.

Emakumeen pertsonako batezbesteko gastua, 2011rekin alderatuz, %0,7 igo da, eta azken urteetako balio maximoan kokatzen da. Bere aldetik, gizonazkoek %2,8 bat galtzen dute. Bere balio maximoa 2009an izan zuten, 140,98 euroekin.


8.8.- Euskadi norako nagusi bezala bisitatzen duten atzerriko bisitarien gastuaren banaketa (turistak eta txangozaleak), sexuaren arabera. 2012. urtea

Bisitarien gastuaren banaketak sexuaren arabera, egiturazko jokaera antzeko bat mantentzen du, baina ñabardura gutxi batzuekin.

Gizonezkoek gastuaren gehiengoa garraioan erabiltzen dute (joan-etorrikoa eta norakoa), txango eta besteetan egiten duten gastuak jarraituz.

Emakumeek txangoetan erabiltzen dute gastu gehiena (gizonek baino 2,5 puntu portzentual gehiago), garraio gastuek jarraituz (4 puntu portzentual gizonen azpitik).

Hirugarren postuan jatetxe, taberna eta kafetegietan egiten den gastua dago, gizonek gastu osoaren %15,2 eta emakumeek %14,9 gastatzen dutelarik. 3 hamarreneko alde hutsalarekin.



Ostatuko gastuetan, emakumeak, gizonak baino, 8 hamarren gehiago erabiltzen ditu portzentualki. Alde berdina dago pakete turistikoa erabileran, emakumearen alde.


Azkenik, elikagaien gastuaren gainean, berdin gertatzen dela esan daiteke, emakumea izanik 3 hamarren gehiagoko gastua egiten duena.

9. EUSKADI NORAKO NAGUSI BEZALA BISITATZEN DUTEN ATZERRIKO TURISTEN ETA TURISTEN GASTUAK, SEXUAREN ARABERA

Bisitariekin bezala, azken bost urteetan, norako nagusi bezala Euskadi bisitatzen duten turista kopuru osoa erakusten da.

Norako eta norako nagusiaren arteko ezberdintasunak turista kopuru osari eragiten dionez, eta ondorioz bisitariari, hemen, turistaren arteko ezberdintasunak aurkezten dira berriz ere, nahiz eta bisitarienen berdinak izan.

2008an norako eta norako nagusiaren arteko aldea, norako nagusiak 551.753 turista gutxiago dituela da. 2009an aldea 535.436 turista gutxiagokoa da, 2010ean 501.850 turista gutxiago dira, 2011ean 427.429 gutxiago eta 2012an 393.706 turista gutxiago norako nagusian.



9.1.- Euskadi norako nagusi bezala bisitatzen duten atzerriko turistak sexuaren arabera. Urteko bilakaera 2008 - 2012



Turisten banaketak, sexuaren arabera, bisitarietan baino diferentzia handiagoa aurkezten du, gizonetan emakumezkoetan baino proportzio handiagoan.

Azken bost urteeteako batezbestekoak 2012an diferentziak txikitzen ditu, 2008tik 2012ra banaketa metatua %61,2 delarik gizonentzat eta 538,8 emakumeentzat.

2012an gizonen interurteko hazkundea %7,9koa izan da, eta emakumeena %7,4koa.


Aipatu beharra dago, aurten izan dela gizonezko turistaren eta emakumezko turistaren arteko aldea areagotu den urtea.

Balio absolutoetan, bi sexuetako turistaren arteko aldeak aldaketa handiak jasan ditu, 2008an 184.075 gizon gehiagoko alde batetik, 2009an (alde txikiena lortzen den urtea) 138.517 gizon gehiagora joanez, urte honetan delarik diferentzia txikiena aurkitzen dugun urtea. 2010ean 203.761 gizon gehiago, 2011ean 300.381 gizon gehiago eta 2012an alde handiena, 326.108 gizon gehiagorekin.



9.2.- Euskadi norako nagusi bezala bisitatzen duten atzerriko turistak hilabeteke, sexuaren arabera. 2012. urtea

2012. urteko hilabeteetan zehar turistek, sexuaren arabera, izandako jokaera aztertzean, ez da patroirik iragartzen duen daturik ikusten. Bisitariekin gertatzen zen moduan, abuztua eta iraila dira hurbiltasun bat ikusten dugun hilabeteak, nahiz eta kasu honetan txikiagoa izan. Ekaina eta martxoa dira sexuen arteko ezberdintasun gutxien aurkeztzen dituzten hilabeteak, baina txikiagoa bada ere, oso desberdina izaten jarraitzen du.




9.3.- Euskadi norako nagusi bezala bisitatzen duten atzerriko turistak, sarbidearen eta sexuaren arabera. 2012. urtea

Errepidean da ezberdintasunak areagotzen diren sarbidea, turista emakumeen kasuan %73 bat irudikatzen du eta gizonen kasuan %76.

Aire bidean, bisitariekin gertatzen zenaren alderantzizkoa gertatzen da, turistaren artean garrantzi handiagoa duen emakumeek %26 lortuz eta gizonen %23,1.

Itsas bidea %1ko edo gutxiagoko pisuekin ez da aipagarria.

Errepideak, alde gehienak markatzen dituen sarbidea, aurreko urteko %3,8 bat igo da gizonen turistetan eta emakumeen turistetan %2,4, guztira 638.147 gizon eta 374.868 emakumekin.



Aire bidean ezberdintasunak hurbiltzen joaten dira, 59 - 41eko banaketa batekin gutxi gora-behera, 2012an emakumeen erakuslea %25,9an zegoelarik eta gizonena %24,1ean, 193.903 gizon eta 133.289 emakume.


9.4.- Euskadi norako nagusi bezala bisitatzen duten atzerriko turistak, bizilekuaren eta sexuaren arabera. 2012. urtea

Turisten %65 a Frantzia bizi dira, eta hauek dira sexuaren arabera batezbesteko banaketa adierazten dutenak.

Bigarren postuan alemaniarak daude, turisten %6,6 batekin. Hauek 65 - 35 eko, gizon eta emakumeen arteko ezberdintasuna igortzen dute.

Hirugarren postuan, %6,1 irudikatuz, ingelesak daude, era homogeneoago batean banatzen direlarik, 57 - 43 batezbesteko proportzio batean.

%50eko proportzio batera gehien gerturatzten diren turistak iberoameriketakoak dira, gizonak %51,7 (14.483) eta emakumeak %48,3 (13.512) direlarik. Belgikarrak %52,8 gizonak (10.946) eta %47,2 emakumeak (9.779). Bi herrialde hauetako turistak, turista kopuru osoaren %2,1 eta %1,5 irudikatzen dute, hurrenez hurren.




9.5.- Euskadi norako nagusi bezala bisitatzen duten atzerriko turistak, bisitaren arrazoiaren eta sexuaren arabera. 2012. urtea

Aisiagatik etortzen dira turista gehienak (%58,7) eta hemen da sexuaren arabera alde gutxien aurkitzen dugun multzoa. %55,7 gizon (442.297), %7,7ko interurteko hazkundearekin, eta %44,3 emakume (351.993), eta %9ko hazkundearekin, dira.

Lanaren arrazoiak, %17ko pisu batekin, gizonen eta emakumeen artean diferentzia esanguratsuak erakusten ditu. 197.944 gizon 31.945 emakumeren aurrean.

Ikasketen arrazoiak turisten %1,2 irudikatzen du, eta sexuen artean ez ditu diferentzia handiak erakusten.



Zerbitzu pertsonalengatik eta beste arrazoiengatik datozen turistak, bateratuta %21,3 irudikatzen dute, eta 190.175 gizon eta 122.745 emakume dira.

9.6.- Euskadi norako nagusi bezala bisitatzen duten atzerriko turistak, egonaldiaren iraupenaren eta sexuaren arabera. 2012. urtea


Egonaldirik irudikatuenak 4 ostatu-gau baino gutxiagokoak dira (%61,5), eta emakume eta gizonen arteko banaketa, %64,8 gizon eta %35,2 emakumekoa da.

Hurrengo egonliririk esanguratsuena 4tik 7ra bitarteko ostatu-gau egiten dituztenen turisten multzoari dagokio (%21,5) emakume eta gizonen arteko ezberdintasunak urteko batezbestekoaren azpitik daudelarik.

8tik 15era bitarteko ostatu-gauak bidezko banaketa bat dutela esan daiteke, 59.603 gizonezko turista eta 57.272 emakumezko turista.


16tik 30era bitarteko ostatu-gauak dituzten turistak, ostatu-gau bakarrekoen antzera banatzen dira.

Egonaldi luzeagoko turistak %1 irudikatzen dute, eta banaketari bira ematen diote, %51,3 emakume (6.665) %48,7 gizonezkoren (6.320) aurrean.



9.7.- Euskadi norako nagusi bezala bisitatzen duten atzerriko turistak, ostatu motaren eta sexuaren arabera. 2012. urtea


Erabilitako ostatu motaren gainean, hotela, turisten %50,8 batek aukeratzen du. Ostatu mota honetan, gizonezkoak dira gehienagoa. Gainontzeko ostatu motekin berdin gertatzen da, batzuk batezbestekoaren oso gertu, baina gaineratik eta beste batzuk azpitik. Azpitik gehien aldentzen den ostatu mota, kanpina da, turisten %10 batekin, gizonen proportzioa %57 bat jeisten delarik, emakumeena %43 bat igotzen den bitartean (77.062 gizon 58.127 emakumeren aurrean).



9.8.- Euskadi norako nagusi bezala bisitatzen duten atzerriko turistak, bidaiaren antolaketaren eta sexuaren arabera. 2012. urtea

Pakete turistikoko bere bidaiak antolatzeko erabiltzen duten turistek %96,6a irudikatzen dute, eta hauetan bi heren gizonak eta gainontzekoak emakumeak dira (814.812 gizon eta 492.091 emakume).



Sexuaren arabera, ekitatiboki banatuta dagoen multzoa, bere bidaiak pakete turistikorekin antolatzen duten turistena da (45.822 turista). Gehienetan hegazkinaz etortzen dira, huetatik 24.604 gizonetakoak eta 21.218 emakumetakoak direlarik, %35,3ko eta %15,8ko interurteko hazkunde batekin hurrenez hurren.



9.9.- Euskadi norako nagusi bezala bisitatzen duten atzerriko turisten gastua, sexuaren arabera. Urteko bilakaera 2008 - 2012

Euskadi norako nagusi bezala bisitatzen duten atzerriko turisten gastuak, sexuen artean patroi berdina jarraitzen du. 2009an gastu osoaren beherakada bat jasaten du, hemendik berreskuratzen joateko aurtengo urterarte, eta 2008an izandako gastu balioak lortuz.

Gizonezkoen gastuaren interurteko hazkundea %10,8koa izan da eta emakumeena %10,3koa.




Turisten gastuaren banaketa sexuaren arabera, sexuaren araberako banaketaren antzekoa da azken urteetan baina sexuen artean diferentzia gutxiagorekin. Aurten gastua gizonezkoen %61aren eta emakumezkoen %39aren artean banatzen da, turistaren kopuruaren arabera ordea, gizonezkoek %62 bat lortzen dute eta emakumezkoek %39 bat.

Euskadira etortzen diren atzerriko turisten eguneko batezbesteko gastuaren bilakaerak, emakume edo gizonetan era ezberdinean

jokatzen du. 2009an gizonen eguneko batezbesteko gastuak beherakako jokaera bat erakusten du, eta gainerako urteetan, 2010, 2011 eta 2012an gorakakoa, azken urte hau %2ko hazkunde batekin. Azken bost urteetako gizonen gastuak 110 euroak gainditzen dituzte.


Eguneko batez besteko gastua / Gasto Medio Diario



Aitzitik, emakumeen eguneko gastuak joera aldagarriago bat erakusten du, 2009an gora egiten du, 2010an jeitsiz, eta 2011ean berriz ere igoaz, 2012an jeisten bukatzeko, %1,3batean. Emakumeen eguneko batezbesteko gastuak ez ditu inoiz 100 euroak gainditu.

Euskadi norako nagusi bezala bisitatzen duten atzerriko turisten pertsonako batezbesteko gastuak, sexuaren arabera aztertzean, urteen joanean elkarri lotutako ibilbide bat erakusten du.

Batez besteko gastua pertsonakoa / Gasto Medio por Persona



2008an, gizonen emakumeek baino 23,54 euro gehiagoko gastua egiten dute pertsonako. 2009an, bi multzoen gastua behera doa, eta beraien arteko aldea 35,78 eurotan kokatzen da, gizonak aurretik. 2010ean gizonen gastua jeitsi egiten da eta emakumeena gora


doa, gizonenaren gainetik kokatuz, 62,38 euroko aldearekin emakumeen alde. 2011ean bien pertsonako gastuak behera doaz, baina proportzio ezberdinean, gastuen arteko 26,74 euroko alde batekin, emakumeen alde. 2012ean pertsonako gastua gizonen artean %2,7 igotzen da eta %2,6 emakumeen artean, gizonen pertsonako gastua 528,33 eurotan kokatuz, emakumeen pertsonako batezbesteko gastuaren 27,11 euro beherago, hau 555,44 euroko delarik.

9.10.- Euskadi norako nagusi bezala bisitatzen duten atzerriko turisten gastuaren banaketa, sexuaren arabera. 2012. urtea

Gastuaren kontzeptuen banaketak gizon eta emakumeen artean, egitura ezberdinak erakusten ditu, ezberdintasun portzentual txikiekin, balio absolutoetan ezberdintasunak handiagoak direlarik, gastu totalak bien artean banatzen direlako.

Garraioan gizonak egindako gastuak, gastu totalaren, %34,4 irudikatzen du, 153 milioiko gastua sortuz, emakumeen %31,6arekin alderatuz, 90 milioi euro (63 milioi gutxiago gizonezkoek baino).

Bigarren postuan ostatuaren gastua dago, gizonak %20,5 batekin, 91 milioi euroekin eta emakumeak %21,4 batekin, 61 milioi euro (30 milioi gutxiago gizonezkoek baino).



Hirugarren postuan jatetxe, taberna eta kafetegietan egindako gastua dago, gizonen %19,8ko gastua irudikatzen duena 88 milioi euroekin, eta emakumeen %18,4 52 milioi euroekin (36 milioi gutxiago gizonezkoek baino).

Laugarren postua txangoetan eta beste gastuetan aurkitzen da, gizonen %12,4 batekin eta 55 milioi euroekin, eta emakumeen %14,1 batekin eta 40 milioi euroekin (15 milioi gutxiago gizonezkoek baino).


Bostgarren postuan pakete turistikoan egindako gastua dago, gizonen %6,4 eta 28 milioi eta erdirekin, eta emakumeen %7,8 eta 22 milioi euroekin (6 milioi eta erdi gutxiago gizonezkoek baino).

Azkenik elikagaietan egindako gastua dago, gizonen %6,4 eta 28 milioi eta erdirekin, eta emakumeen %6,7 eta 19 milioi euroekin (9 milioi eta erdi gutxiago gizonezkoek baino).

10. EUSKADI NORAKO NAGUSI BEZALA BISITATZEN DUTEN ATZERRIKO TXANGOZALEEN ETA TXANGOZALEEN GASTUAK, SEXUAREN ARABERA

Aurrerago aipatu den bezala, norako eta norako nagusiaren arteko ezberdintasunak ez du txangozaleengan eraginik, hauek norako bakar bat adierazten baitute informazio atzematearen eragiketan.

Berriz ere, azken bost urteetako txangozaleen kopuru osoa grafikan aurkezten da, dagokion atalean behin eta berriz ez begiratzeagatik, atal honetako kalkulo edo zifraren batean kopuru osoaren zenbakia behar bagenu.





10.1.- Euskadi norako nagusi bezala bisitatzen duten atzerriko txangozaleak sexuaren arabera. Urteko bilakaera 2008 - 2012

Txangozaleen banaketa sexuaren arabera, turistek kasu bakoitzeko bidezkoagoa da.

2008an eta 2009an banaketa 56 gizon eta 44 emakumeena zen, 2010ean gehiago aldentuz (59-41) eta 2011ean desberdintasun handienera iritsiz 61 - 39 batekin, aurten pixka bat jeitsiz, gizonak %0,8 batean jeitsi direlako eta emakumeak %0,5 batean.


Azken bost urteetako batezbesteko proportzioa, gizonak %58,8 eta emakumeak %41,2 izan da.



Balio absolutoetan emakumezko txangozaleen eta gizonezko txangozaleen artean dauden ezberdintasunak, gizonen alde daude azken urteetan. 2008an bien arteko diferentzia 938.949 gizon gehiagokoa da, 2009an, 1.025.151 gizon gehiagokoa, 2010ean 1.615.559 gizon gehiagokoa eta 2011ean 2.138.526 gizon gehiagorekin ibilbide berdina mantentzen da. 2012an ezberdintasuna jeitsi egiten da, 2.071.405 gizon gehiagotara.

10.2.- Euskadi norako nagusi bezala bisitatzen duten atzerriko txangozaleak hilabeteko, sexuaren arabera. 2012. urtea

Hilabeteko banaketari begira, gizonetako txangozaleak uztaila, abuztua eta irailan jeitsi egiten dira, emakumeen aurrean, berdintasuna inoiz ez dutelarik lortzen. Gizonak emakumeak baino gehiago izaten jarraitzen dute. Hilabeteko banaketak ez du informazio aldetik datu argigarririk edo adierazgarririk ekartzen.




10.3.- Euskadi norako nagusi bezala bisitatzen duten atzerriko txangozaleak, sarbidearen eta sexuaren arabera. 2012. urtea

Txangozaleen %99,8ak errepidea erabiltzen du sarbide bezala. Horregatik arreta erakartzen duen sarbide bakarra da, besteak ez dutelarik garrantzia handirik.


Errepide bidez etortzen diren txangozaleen artean %60,6 gizonak dira, 5.892.543, eta emakumeak gainontzeko %39,4, 3.825.816 emakume txangozale direlarik.

Aurtengo datu hauek, emakumeen %0,6ko hazkunde baten ondoren lortu dira, eta gizonetako %0,8ko beherakada baten ondoren 2011ean.



10.4.- Euskadi norako nagusi bezala bisitatzen duten atzerriko txangozaleak, bizilekuaren eta sexuaren arabera. 2012. urtea

Txangozaleak bizilekuaren arabera aztertzen direnean, sarbideekin gertatzen den bezala, hauen %94 a Frantziakoak direla, eta bigarren Portugaldarrak %2 batekin (herrialde bizilagunak), ikusi daiteke. Batera, turista guztien %96 a irudikatzen dute, gainerako jatorrizko herrialdeek ez dutelarik sexuaren aldagaiarekiko eztaba daezineko daturik ekartzen.



Izan ere, ondoko grafikan, ez da Ipar Ameriketako txangozaleen daturik ere agertzen, ez direlako lagin minimo batera iristen.

Frantzian bizi diren txangozaleen banaketa sexuaren arabera, 2012ko banaketa adierazten duena da ere bai. %60 gizon %40 emakumeren aurrean (5.506.175 gizon eta 3.646.649 emakume). Emakumeak aurreko urtearekin alderatuz %1,2 igo dira eta gizonak %0,3 bat jeitsi.


Txangozale portugaldarrek ezberdintasun handiagoa mantentzen dute, %78 gizon (155.359) %22 emakumeren aurrean (44.232).

10.5.- Euskadi norako nagusi bezala bisitatzen duten atzerriko txangozaleak, bisitaren arrazoiaren eta sexuaren arabera. 2012. urtea

Aisiaren arrazoiagatik, gizon eta emakumeen arteko banaketa, gehien gerturaten dena da, beste edozein arrazoiagatik baino gehiago, 1.441.883 gizon 1.062.169 emakumeren aurrean. Aisiak txangozaleen %26 a irudikatzen du.

Lanaren arrazoiak txangozaleen %65eko irudikapen batekin, 447.420 gizon eta 145.501 emakumeren artean banatzen da.

Ikasketen arrazoiak ez dauka beharrezkoa den lagin baserik.





Arrazoi pertsonalengatik eta beste arrazoiengatik datozen txangozaleak, txangozaletasun guztiaren %67,8 bat irudikatzen dute, 4.006.416 gizon (%60,7) eta 2.599.156 emakume (%39,3).

10.6.- Euskadi norako nagusi bezala bisitatzen duten atzerriko txangozaleen gastua, sexuaren arabera. Urteko bilakaera 2008 - 2012

Turistekin gertatzen denaren aldera, txangozaleen artean sexuaren banaketak gastu osoaren arabera, ezberdintasun handiagoak erakusten ditu.


Gizonezko txangozaleen gastu totala, 2009an nabarmenki igotzen da, 100 milioi euro baino gehiagotan, 2010 13 milioitan jeisten da, 2011ean 136 milioi igotzen da berriro ere, eta 2012an berriz ere 66 milioi jeisten da (%12,2), 476 milioetan geratuz. Gizonezko txangozaleen gastuaren kota altuena 2011koa izan zen 541 milioi eta erdi euroekin.



Emakumezko txangozaleen gastu totala 2008tik 2011ra igotzen joan da, 2009an 16 milioi eurotan igotzen, 2010ean 8 milioi eurotan, 2011ean 49 milioi eurotan eta 2012an %5,1 jeitsiz, 286 milioetatik pixka bat gorago kokatuz.

Gizonezko eta emakumezko txangozaleen gastuaren aldeak urteen joanean aldatzen joan dira, gizonen gastua handituz. 2008. urtean gizonek emakumeek baino 88 milioi eta erdi gehiago gastatzen dituzte, 2009an gizonek emakumeek baino 195 milioi gehiago, 2010ean gizonek emakumeek baino 152 milioi eta erdi gehiago, 2011ean gizonek emakumeek baino 240 milioi euro gehiago eta 2012an gizonek emakumeek baino 189 milioi eta erdi gehiago.

Txangozaleen pertsonako batezbesteko gastuak gizonezkoetan handiagoak izateko jokaera erakusten dute, nahiz eta urte batzuetan emakumeen pertsonako batezbesteko gastuak oso gertu egon.




2008an aldea 7 eurokoa da, 2009an 29 eurokoa, 2010ean 7 euro berriz ere, 2011ean 12 eurokoa eta 2012an eurokoa.

10.7.- Euskadi norako nagusi bezala bisitatzen duten atzerriko txangozaleen gastuaren banaketa, sexuaren arabera. 2012. urtea

Berriz ere, gastu totalaren banaketak gizon eta emakumeen artean, proportzionaltasun berdina mantentzen du, aldaketa txiki batzuekin.

Euskadi norako nagusi bezala bisitatzen duten txangozaleen gastu handienak, txango eta besteetan egiten dena, gizonezko txangozaleen gastu totalaren %52 bat irudikatzen du, 247 milioi euroekin. Emakumeen kasuan, gastu honek %56,6 bat irudikatzen du, 163 milioi euroekin (gizonetan baino 85 milioi gutxiago).




Garrantzian bigarrena garraioan egindako gastua da (joan-etorrikoa eta norakoa), gizonen kasuan %37,1 irudikatzen duelarik 176 milioi euroekin, eta emakumeen kasuan %32 bat 92 milioi euroekin (84 milioi gutxiago).

Azkenik, jatetxe, taberna eta kafetegietan egindako gastuak, gizonezko txangozaleen gastu totalaren %10,9 irudikatzen du 52 milioi euroekin, emakumezko txangozaleen %11,4aren aurrean, 32 milioi eta erdi euro (gizonezkoen baino 19 milioi eta erdi gutxiago).

BASQUE
TOUR



*turismoaren
euskal agentzia
agencia vasca
de turismo*



EUSKADI
BASQUE COUNTRY

Herri-baltzua

Sociedad Pública del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO